AKTA 39 ACTA 39

2011KO MARTXOAK 31 31 DE MARZO DE 2011

ORGANOA: UDAL BATZARRA
ORGANO: AYUNTAMIENTO PLENO

BATZARRALDIA: OHIKOA
SESION: ORDINARIA

TOKIA: UDALETXEKO OSOKO BILKUREN ARETOA
LUGAR: SALON DE PLENOS DE LA CASA CONSISTORIAL

EGUNA: 2011KO MARTXOAK 31
DIA: 31 DE MARZO DE 2.011

HASIERA ORDUA: 19:00
HORA DE COMIENZO: 19:00

LEHENDAKARIA: Iñaki AGIRREZABALAGA ALKORTA.
PRESIDE

ZINEGOTZIAK: BERTARATUTAKOAK
CONCEJALES: ASISTEN

Andoni ETXANIZ OSA
Maria Eugenia ARRIZABALAGA OLAIZOLA
Lide AMILIBIA BERGARETXE
Manuel ZUBIA ARTABE
Unai MANZISIDOR ANDONEGI
Joseba Josu AZPIAZU AZKARRAGA
Nerea EPELDE AZKUE
Emiliano CABAÑAS GONZALEZ
Cristina FORCADA UNANUE
Aitor LEIZA ALBERDI

EZ DIRENAK BERTARATU:
NO ASISTEN:
Pilar ETXABE IRIONDO
Paloma HEREDERO NEGREDO

IDAZKARIA: GORKA URGOITI AGIRRE

SECRETARIO:

| | |
|---|---|
| Alkate jaunak bilera eratutzat ematen du. | Se da por constituida la sesión por el Alcalde-Presidente. |

ALKATE-LEHENDAKARIA (EA):
Ekingo diogu ohiko pleno honi, gaur martxoak hogeita hamaika, osteguna, arratsaldeko zazpirak eta bost pasatxo diren hontan.
Aurrenengo puntua:

**AURREKO BILERETAKO AKTEN ONARPENA bi akta dauzkagu, bat otsailak 24koa eta bestea martxoak 3koa,**

**Bateren batek, zerbait esateko,**
**Inork ez, bueno, aprobatutzat ematen dira.**

Bigarren puntua, OGASUNA.-
**ZUMAIAKO UDALEKO 2011. URTEKO 1. KREDITU ALDAKETA ONARTZEA, BIDEZKO BALDIN BADA.**

Hau dagoeneko azkenengo Ogasun batzordean ikusia eta Joseba, Ogasun batzordeburu bezala,

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA, JNA. (TALDE MISTOA):
Arratsalde on guztioi,
Dakizuenez hau hainbat ogasun batzordetan ikusi da, hirutan edo..., izango litzake 2011ko aurrekontuaren lehenengo kreditu aldaketa, eta dakizuen bezala berez da Berdintasun programari finantzazioa emateko, Gazteriaren programa sortzeko eta kale heziketa partida sortzeko.
Orduan, proposatzen den kreditu aldaketa, jaisten da lehenengo kapitulua eta bigarren kapitulua eta igotzen da baita ere lehenengo eta bigarrengo kapituluak igotzen dira, biak ere kopuru berdinean, hau da, lehenengo...

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): Ahora sí, ahora sí...

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA, JNA. (TALDE MISTOA): Lehen esan dut, kreditu aldaketa proposamen hau izango litzakeela 2011ko aurrenengoa eta hiru edo lau hazienda batzordetan ikusi dela nahiz eta planteamentu aldatu den hasieratik eta berez dela Berdintasun programa finantziatzeko, Gazteria programa sortzeko eta Kale Heziketako partidak bereizteko baita ere.
Orduan, aurrenengo kapitulua murrizten da eta igotzen da kopuru berdinean eta bigarren kapitulua ere murrizten da eta igotzen da kopuru berdinean. Plenora ekarri beharrekoa da programa berri bat sortzen delako eta, ez dakit, kopuruetan eta konturatu bazarete gehienak gehitzen dira eta murrizten dira kopuru berdinean, batzuk ezik, gutxi batzuk ezik, baina baita ere 2011ko aurrekontuen borradorearekin konparatu baldin baduzue ordutik hona ere, orduan ia jaitsita zeuden baina Berdintasuneko partidak 24 mila euro jaitsi dira eta Kale heziketakoa beste 9. Eta bai, gazteriakoa igo dela 12 mila eurotan, baina guztira ba... jaitsi da ba... kopuru hortan, esan dudana eh?
Orduan ez dakit, bateren batek zerbait daukan esateko, nik behintzat.... bakarrik esan aklaratzeko Pertsonal gastuak azkenean ez direla... (esan dut) baina bueno... ez direla igotzen, zeren, aurreko urteko luzapenarekin nahikoa da.

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Bai... guk gaur galdera batzuk ditugu eta gustatuko litzaiguke motzean, behintzat, erantzutea balegoke, ezta?
Esaten duzutenean Gazteriako Programa berri bat sortzen dela, galdetu nahiko genuke, zer esan nahi duen, zehazki, programa berri batek?
Bestalde, Berdintasuna programa barruan edo Berdintasun ekimenaren barruan langilearen finantziazioa emateko esan duzu dela, kapitulu batari dagokion moldaketa edo egiketa, eta orain artean langile horrek bere soldata kobratuko zuenez, zer dela eta momentu hontan behar du kreditu aldaketaren baten bitartez, finantzazioa?
Eta bide batez, ba... ez dakit, denok dakigun?, ni, neuk, ez dakit, aitorzen dut, eta ez nintzen egon hazienda batzordetan, ez naiz egon, ezin izan dudalako.
Langile hori noiztik dagoen kontratatuta?
Nola kontratatu zen?
Eta hori... lehenago esan dudan bezala ea nondik ordaindu zaion soldata orain artean? Eskerrik asko

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Nik bakarrik Gazteria partidari dagokionez, bakarrik esan hau lehendik zegoen partida bat dela, gertatzen dena da reestrukturatzean beste... zera berri batean jartzean, jakin da orain teknikari berri bat dagoela ba... hor jartzeko partida bakarrik, partidaren aldaketa suposatzen duela, eh?
Eta kontratazioari dagokionez, ez dakit, zuk Andoni,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Bai, Teknikariaren kontratazioaren berri eman genuen Pertsonaleko batzordean, teknikaria irailetik dago lanean eta lehendabiziko kapituluan aurreikuspen batzuk egiten dira, aurrekontu batzuk egiten dira eta gero aurrekontuaren exekuzio mailaren arabera remanenteak egoten dira edo ez, eta horrek aukera ematen dizu ba... programa berri, berezi bat edo... aukera... urtean zehar sortzen den behar berri bati ere, ba... erreparatuz zer nolako diru iturria edo kopurua daukazun eta kontratatzeko aukera eta 2010eko aurrekontuetako lehendabiziko kapituluko egoerak aukera hori ematen zigun eta orain ba... 2011rako definizioa diru kopuru berdinekin, definizioa ba... egokitu beharra daukagu edo nahi dugu kontratazio horrek bere isla eduki dezan aurrekontuetan.

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Bale, orduan pentsatzen nuen bezala da reestrukturazio bat, aurretik zeuden partida batena... batzuena ¡bale! Eta bestaldetik ba... bueno orain erantzunarekin beste zalantza bat sortzen zait eta da, kapitulu batak remanenteak eduki ditzake baina remanenteak kalkulatzen dira aurrekontu osoarengain eta oker ez baldin banago aurrekontua bera likidatzen denean, alegia, aurrekontua jarduera onartzen dagoen bitartean remanenterik ez dago, eduki duzu dirua, baina, ez dakit, zalantzak sortzen dizkit orain artean nondik ordaindu zaion ordainketa hori egiteko, partidarik ez zegoen aurrekontu batekin, nahiz eta aurrekontu hortan likidatzen denean akaso ba... remanenteak egon edo akaso ez, oraindik ez dugu eta ezagutzen likidazioaren emaitza,

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA, JNA. (TALDE MISTOA): Nik, esan dudana lehen da, partida hauetan daudela Berditasun programaren finantziazioa, baina konkretuki langilearena, ez, zeren langilearen finantziazioa lehengo urteko Pertsonal gastuekin, pertsonal gastuen luzapenarekin iristen da, ordaintzeko; orduan da finantziatzeko

ba... beste iharduera hauek martxoak 8; azaroak 25; publizitatea, konkurtsoak, tailerrak, e.a.
Remanentea kasu hontan ez dugu behar, o sea 2011ko aurrekontuak daude luzatuta Pertsonal gastu batzuk daude eta egiten dira programa baten Pertsonal gastu batzuei baja eman eta Pertsonal gastu berdin berdinak beste programa baten alta eman, baina lehen bezala geratzen dira gastuak, kopuruan.
Ez dakit esplikatu dudan edo ez, baina... bueno

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Bueno, Emiliano? Ezerrez
Zuek ere ezerrez, bueno ba... bozkatzera pasatzen gara, PNV?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Bai, bueno, nik ez dakit, egin ditudan galdera hauekin, nahi nuena zen zalantzak argitu eta ez dakit zenbateraino argitu diren, behintzat, orain arte kokapenaren aldetik irregulartasunak egon direla susmatzen dut, ez dakit zenbaterainoko larritasuna daukan asuntuak,
Edozein modutara, lehen ere bazegoen gure ustetan Gazteria Programa izenburu zeukana, aurrekontuetan agertzen zen behintzat urtero, hori Gazteria programa bat eta noski ba... bueno, orokorrean ba... Gazteriaren aldeko politikarekin ados gaudenez, ba... aldeko botua emango dugu,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldeko botua; Emiliano?

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): A favor,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldekoa, ARALAR-ALTERNATIBA-?

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. (ARALAR-ALTERNATIBA): Aldekoa

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: ARALAR-ALTERNATIBA Aldekoa, TALDE MISTOA?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Guk ere alde bozkatuko dugu, baina bai komentatu Udal Pleno honek Berdintasun Plan

bat aho batez onartu zuela, Berdintasun Plan horrek aurreikusten zituela akzio batzuk, horietako bat kontratazio hau aurrera eramatea eta kontratazioaren inguruko zalantzak edukiz gero ba... bueno, nik usten dut Udal Plenoan baino egokiago Udal honek badauka Pertsonaleko Teknikari bat gai Teknikoetaz hitz egiteko eta gu azken finean ba... bueno saiatzen gara ahalik eta hobekien erantzuten baina ulertuko duzuen bezala, Hirigintzaz, Pertsonaletaz, Gizarte Zerbitzuetaz, ba... gai guztietaz eskatzen den zehaztasun guzti horiek Plenoan ematea, nahiko zaila egiten zaigu, beraz, irregulartasunaz hitz egin aurretik ba... ondo egongo litzateke behintzat kontsulta hori egitea Pertsonaleko Teknikariarekin plenoan horrelako hitzak erabili aurretik eta irregulartasun horiek ez daudela behintzat argi utzi eta zalantzik edo geratzen baldin bazaizkizue, hitz egin Pertsonaleko Teknikariarekin eta argituko zaizkizue zalantzak,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Bueno eta nik ere aldeko botua, beraz, alderdi guztien aldeko botuekin onartutzat jotzen da kreditu aldaketa,

ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 11 botu (4 EAJ-PNV; 1 PSE-PSOE; 2 ARALAR /ALTERNATIBA; 3 TALDE MISTOA; 1 EA)
Aurkako botuak: 0
Abstentzioak: 0

**LEHENENGOA:** ZUMAIAKO UDALEKO 2011. URTEKO 1. KREDITU ALDAKETA AHO BATEZ ONARTZEA,
.

**BIGARRENGOA:** Erabaki hau legeak agindutako eran Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea jendeak horren berri izan dezan.

PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 11 votos (4 EAJ-PNV; 1 PSE-PSOE; 2 ARALAR /ALTERNATIBA; 3 TALDE MIXTO; 1 EA ).
Votos en contra: 0
Abstenciones: 0

**PRIMERO**: APROBAR POR UNANIMIDAD, LA MODIFICACIÓN DE CRÉDITO NUM. -1- DEL 2011 DEL AYUNTAMIENTO DE ZUMAIA.

**SEGUNDO:** Publicar en legal forma el presente acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa para general conocimiento

Hirugarren puntua: PERTSONALA.-

**UDAL HONETAKO LANGILEA DEN ALAITZ ZABALEGI ANDREAREN BATERAGARRITASUN ESKAERA ONARTZEA, BIDEZKO BALDIN BADA.-**

Andoni,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Bai, gai hau martxoaren 23ko Pertsonal batzordean jaso zuen irizpena, aho batez, onartu zen eta bertan adierazi zen, esplikatu zen, ba... horrelako bateragarritasun eskaerek baldintza batzuk bete behar dituztela eta kasu honek ba... betetzen ditu, eta berez, tokatzen da onartzea bateragarritasun eskaera hau.
Baldintzetako bat da, berak Zumaiako Udalarekin duen lan kontratua eta bateragarritasuna eskatzeko duen lan eskaintzaren artean, bien artean ehuneko lanaldia edo gutxiagoko lanaldi bat akumulatzea.
Zumaiako udaletxean, %50eko kontratu bat baldin badauka, Zumaiako udaletxetik kanpo %75eko kontratazio bati bateragarritasunik ezingo litzaioke eman, orduan bere jornada laborala % 100a edo gutxiagoa izan behar du, bi lanpostu edo bi lan eskaintza horietan.
Bere garain aurkeztu zen gaia, betetzen ditu baldintzak eta bueno... ba.... eskaera hau orain pasatzea eta onartzea tokatzen da bateragarritasun hori eduki ahal izateko langileak,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Bateren batek, zer edo zer esateko?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Bai,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: M. Eugenia,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Zein da langilea?
Zein da bere lanpostua?
Eta nola kontratatua izan da?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Bueno, langilea zein den bertan agertzen da, lanpostua ere pentsatzen dut bertan agertuko dela, eta agertzen da, eta nola kontratatu zen Pertsonaleko Batzordean kontratazioa egin zen garaian esplikatu zen berriz ere diot, horrelako

galdera zehatzak, faborez, ba... egin ditzazue hortarako dauden batzorde berri emailetan, guri behintzat oso zaila egiten zaigu ba... momentu hontan, ez dakit, planteatzen diren zalantza tekniko guzti hauei aurre egitera.
Udaletxeak lanpoltsa bat dauka, hezitzaileen lanpoltsa bat egin zuen 2010aren hasieran eta oposaketa lehiaketa publiko baten bitartez eta lanpoltsa hortatik kontratatu zen pertsona hau eta Ludotekako Hezitzailea da, baina esaten dut, ez dakit, ez dut ulertzen horrenbeste galdera egiteko beharra plenoan, beste ba... dauden bideak erabiltzen ez direnean, nik usten dut, informazioa nahi izanez gero, badagoela eta honeraino etorri beharrik ez daukagu informazioa eskatzeko, hemen aukeran ba... bueno erabakiak hartzeko gaude eta dauzkagun zalantzak lehenagotik ere argitzen saia gintezke, baina hala ere ahal dugun neurrian ba... argituko ditugu, baina esaten dizut, aspaldiko kontua da baina badakit lanpoltsa bat egin zela eta lanpoltsa hortatik kontratatu direla eta Ludotekako Hezitzaile bat da, bi Hezitzaile daude eta hau bi horietako bat da.

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Bateren batek, zer edo zer gehiago, Emiliano,

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): Yo en principio, creo que bueno... que está en su derecho y de acuerdo con la Ley, el poder contratar ese 40%, lo único que cabe es una... digamos un seguimiento del tema por parte de quien corresponda para que ese 40% no suponga una merma de su actuación dentro del 60% municipal, en principio, sería lo que corresponde ejecutar porque el resto la Ley le posibilita, por lo tanto no daría lugar ni a que lo tuvieramos que aprobar aquí,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Bateren batek, gehiago?
Ezerrez,
Bueno... bozkatzera pasako gara PNV?

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Bai, gainera bozkatu aurretik esan azken finean egiten ditugun galderak ez direla hain zailak eta bueno... ba... ez dakit... Pertsonal batzordeburuak egindako galdera xinple horiei, erantzun xinple bat emateko modua bestelako erretorikarik gabe ere edukiko lukeela, eta azken finean pleno hau da ba... zinegotzi osoa; denok osatzen dugun bueno... erabaki gune bat, bai, bai, erabaki gune bat baina baita ere eztabaidarako eta pentsatzen duguna edo ez dakiguna galdetzeko ere, zergatik ez?
Eta gure aldeko botua,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: PSOE,

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): A favor,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldekoa, ARALAR-ALTERNATIBA?

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. (ARALAR-ALTERNATIBA): Aldekoa

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldekoa, TALDE MISTOA?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Gauza bat da galderak egitea eta beste gauza bat gauzak zalantzak jartzea eta niri iruditzen zait hori dela azken finean galderen helburua, ez jakitea baizik eta egin direnak zalantzan jartzea, niri behintzat hala iruditu zait eta horregatik erretorikak, erratuta baldin banago, sentitzen dut,
Aldeko botua,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aldeko botua eta nik ere aldeko botua, beraz, onartzen da guztien aldeko botuekin

ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 11 botu (4 EAJ-PNV; 1 PSE-PSOE; 2 ARALAR /ALTERNATIBA; 3 TALDE MISTOA; 1 EA)
Aurkako botuak: 0
Abstentzioak: 0

PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 11 votos (4 EAJ-PNV; 1 PSE-PSOE; 2 ARALAR /ALTERNATIBA; 3 TALDE MIXTO; 1 EA ).
Votos en contra: 0
Abstenciones: 0

**LEHENENGOA:** UDAL HONETAKO LANGILEA DEN ALAITZ ZABALEGI ANDREAREN BATERA-GARRITASUN ESKAERA AHO BATEZ ONARTZEA,
.

**PRIMERO**: APROBAR POR UNANIMIDAD, LA SOLICITUD DE COMPA-TIBILIDAD PRESENTADA POR LA EDUCADORA DEL AYUNTAMIENTO, Dª. ALAITZ ZABALEGI

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Gauza bat, oso ondo iruditzen zait, baina batzorde informatzaileak jarri dituzue goizez, juxtu, honetaz hitz egin zen batzorde informatzailea goizez esan izan zen edo ez? ez dakigu, baina hala izan bazen eta ez bakarrik Pertsonalekoak, Hirigintzakoak eta beste batzuk eta idatziz egin genuen gure... edo adierazi genuen gure desadostasuna ez daukagu etortzerik, eta etortzerik ez daukagunez batzorde informatzaileetara, gainetik, plenoetan ez bazaigu galdera xinple eta oinarrizkoenak egiteko aukerik ematen ba... benetan ez dago ondo, ez duzute sistema batere transparentea planteatzen beste erabatera esateagatik ari naiz hori erabiltzen

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Bueno, bueno,
Gero eztabaidatuko dugu nahi baldin baduzue, eskari-galderetan eh?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Beste bide batzuk ere badaudela, bakarrik adierazi informazioa lortzeko plenora zain egon beharrean, besterik gabe,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Laugarrengo puntuari ekingo diogu, MOZIOA.-

**USURBILGO ITUNAREN INGURUKOA, (Hondakinen kudeaketa) TALDE MISTOAK AURKEZTURIKOA**

Andoni,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Bai, mozioa irakurriko dut,

Usurbilgo Itunak honako MOZIOA aurkezten du Zumaiako Udalak bere egin dezan:

Hondakinen kudeaketaren inguruan eztabaida soziala puri-purian dago Gipuzkoan. Hondakinak , hau da, lehengaiak zabor bilakatzen dira gaikako bilketarik behar bezala sustatzen ez delako. Ondorioz birziklagarriak diren lehengaiak nahasita bildurik arazo bihurtu dira eta, aldi berean, gure osasuna eta ingurumena kaltetuko lukeen errauste planta baten proiektua bultzatu nahi du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Ondorioz, errauste plantaren proiektuak 580 milioi euroko kostua izango duenez, udalok kezkaz bizi dugu egoera, datozen hamarkadatan menpekotasun ekonomikoak kezkatzen gaituelako. Baina, aitzitik, udalok irizten diogu Gipuzkoan %80tik gorako bilketa selektiboa lortzen duten bilketa sistemak badaudela, eta hondakinen arazoari irtenbidea ematen diotela. Beraz, egoera honen aurrean udalerri honek zera onartzen du:

El Pacto de Usurbil presenta la siguiente MOCIÓN para que el Ayuntamiento de Zumaia la apruebe:

En Gipuzkoa el debate social sobre la gestión de residuos está en el candelero. Los residuos, es decir, la materia prima, se convierte en basura porque no se promociona como se debe la recogida selectiva. Como consecuencia, los residuos que en realidad son reciclables se han convertido en problema porque se recogen sin seleccionar, al mismo tiempo que la Diputación Foral de Gipuzkoa está apostando por el proyecto de una planta incineradora que perjudicaría nuestra salud y el medio ambiente. El coste de la planta incineradora asciende a 580 millones de euros, es un tema que a los ayuntamientos nos inquieta mucho porque nos preocupa la dependencia económica que eso va a suponer en las décadas venideras. En cambio los ayuntamientos pensamos que en Gipuzkoa hay sistemas de recogida que garantizan la recogida selectiva del 80% de los residuos, sistemas que solucionan el problema de los residuos. De modo que ante esta situación este ayuntamiento aprueba lo siguiente:

1.- Hondakinen kudeaketa egiteko orduan gipuzkoarron osasuna lehenesten du irizpide gisa.

2.- Osasunaz gain, hondakinak kudeatzeko orduan ingurumena kalte lezakeen edozein tratamendu baztertzen du.

3.- %80tik gorako bilketa selektiboa lortzeko bideak dauden bitartean hondakin eta isurketa toxikoak eragiten dituen errausketaren bidea baztertzen du.

4.- Hondakinak biltzeko orduan, Gipuzkoan indarrean dagoen 10/98 legea betearazteko konpromisoa hartzen du, zeinak dioen 5.000 biztanle baino gehiago duen udalerriak derrigorrez materia organiko guztia gaika bildu behar den. Era berean, 5.000 biztanle baino gutxiago ditugun udalerriok ere lege honen edukiekin konpromisoa hartzen dugu.

5.- Gipuzkoan zero zabor programa edo zaborren kudeaketan errauskailua ez dela beharrezkoa azaleratuko duten programak garatzeko Zubietan egin nahi duten erraauste plantari hiru urteko moratoria ezartzea eskatzen dio Gipuzkoako Foru Diputazioari.

1.- El criterio que debe de regir la gestión de los residuos es el garantizar la salud de los gipuzkoanos.

2.- Además de garantizar la salud, se descarta cualquier tratamiento que dañe el medioambiente.

3.- Rechaza la vía de la incineración que causa vertidos tóxicos mientras existan formas de conseguir una recogida selectiva de más del 80%.

4.- A la hora de recoger los residuos, adopta el compromiso de cumplir la ley 10/98, según la cual, toda la materia orgánica de los municipios de más de 5.000 habitantes debe ser recogida selectivamente. De la misma manera, los municipios de menos de 5.000 habitantes adoptaran el mismo compromiso.

5.- Solicita a la Diputación Foral de Gipuzkoa una moratoria de tres años para la planta incineradora que se quiere construir en Zubieta, para poder desarrollar en ese tiempo programas de cero residuos u otros que vengan a dejar claro que no hace falta una incineradora.

6.-Errauste plantaren proiektuak 580 milioi euroko kostua duela kontuan hartuta eta udalbatzar honek ez duela ez eztabaidatu eta erabakirik hartu erabaki horren gainean, larritzat jotzen dugu proiektu honek hamarkadatan udal honi eragingo dion menpekotasun ekonomikoa.

6.- Teniendo en cuenta que el coste de la planta incineradora es de 580 millones, y que esta corporación no ha debatido, ni ha decidido nada sobre este tema, consideramos grave la dependencia económica que este proyecto supondrá para el Ayuntamiento en las décadas venideras.

7.- La Caixari, Banestori eta EIBri eskatzen diegu lanposturik sortzen ez duen eta etekin ekonomikoak lortu asmoz ingurumena eta osasun publikoa kaltetzen duen proiektuaren finantzazioa bertan behera uztea.

7.- Solicitamos a la Caixa, a Banesto y a EIB que abandone la financiación del proyecto que no crea puestos de trabajo y que perjudica la salud pública con fines lucrativos.

8.- Erabaki honen berri, herriko komunikabideez gain, Gipuzkoako Diputatu Nagusiari, Banestori, La Caixari eta EIBri jakinaraztea.

8.- Daremos cuenta de este acuerdo, a los medios de comunicación, al diputado general de Gipuzkoa, a Banesto a La Caixa y a EIB.

Zumaiako Udaleko Talde Mistoaren izenean, Udalbatza honek hala baderitzo onartu dezan,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Bueno, eztabaida horiek egiteko, PNV-k zer edo zer esateko,
Lide,

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND. (EAJ-PNV): Arratsalde on,
Beste behin ere gure asmoa zen kontrako mozio bat aurkeztea eta beste behin ere ba... ezin izan gara azaldu Junta edo Bozeraemaileen batzordera, alferrik izango da eskatzea emergentziz, urgentziz, hemen sartzea zeren beste batzuetan ere esan diguzute ezinezkoa dela, orduan egingo duguna da irakurri guk prestatuta geneukan mozioa gure iritzia azaltzeko eta gero zuzenekiko edo... sartuko gara eztabaidan

“ Martxoko ohiko osoko bilkuran eztabaidatzeko Usurbilgo Itunari buruzko ekimen bat aurkeztu duzula eta, Udaleko EAJ/PNV taldeak MOZIO hau aurkezten du:

Gipuzkoako Lurralde Historikoa pauso garrantzitsuak ematen ari da iraganeko hondakinen kudeaketa-sistema ixteko eta XXI. mendearekin hobeki datorren beste sistema batera pasatzeko, Europako araudian eta, zehazki, Hondakinen Kudeaketari buruzko Esparru Zuzentarauan xedatutakoarekin bat etorriz.

Horregatik, Zumaiako Udalbatzak:

1.- Berretsi egiten udal konpromiso hau: errespetatu egingo duela Gipuzkoako hondakinak kudeatzeko politika, Batzar Nagusiek eta Gipuzkoako Hondakinen Partzuergoko Batzarrak gehien-gehiengoz erabaki eta onartua eta PIGRUG Aurrerapen Dokumentuan jasotakoa (abenduaren 23ko 7/2008 Foru Araua), eta, zehazki, errespetatu egingo dituela 4. artikuluan zehaztutako kudeaketa-aukera estrategikoak, Hondakinen Kudeaketari buruzko Esparru Zuzentarau berrian ezarritako komunitate-hierarkia bildu eta erabat errespetatzen baititu.

a) Prebentzioa maximizatzea.
b) Ahalik eta lehen mailako hondakin gehien gaika biltzea eta birziklatzea.
c) Ahalik eta materia organiko konpostagarri gehien gaika biltzea eta konpostatzea eta/edo biometanizatzea.
d) Sortutako bigarren mailako hondakinak albait gehien balioztatzea.
e) Lehen mailako hondakinik ez isurtzea.

2.- Errotik baztertzen du gure zaborra tratatzeko aurreikusi diren azpiegitura berriak egiteko edozein moratoria. Begi bistakoa da albait gehien prebenitu, birziklatu eta konpostatuta ere beti izango dela hondakinen parte bat birziklatu eta konpostatu ezin dena.
Guk argi egiten dugu hondakin horiek balioztatzearen alde, hau da, horien energia aprobetxatzearen alde, zabortegietara botata alferrik galdu ordez.

3.- Uste du argi frogatuta dagoela errausketaren bidez energia balioztatzeko planta modernoak EZ DIRELA ARRISKUTSUAK pertsonen OSASUNERAKO. Ozenago esan liteke, baina ez argiago.

4.- Elkartasuna adierazten die hiri zabortegiak dauzkaten eta gure zaborra hartzen duten udalerriei. Hala, San Markoko zabortegia itxita, albait azkarren eraiki behar dugu Gipuzkoako Hondakinak Kudeatzeko Zentroa, Urteta, Lapatx eta Sasietako zabortegiak ixteko.

5.- Adierazten du guztiz prest dagoela San Markoko Mankomunitatearekin eta Hondakinen Partzuergoarekin elkarlanean aritzeko, hondakinak pixkanaka, egokitzat jotzen diren ekimen guztiak abian jar daitezen zentzuz eta gizarte, ekonomia eta ingurumen aldetik jasangarria izango den modu batean bildu eta kudeatzeko sistemak hobetzeko".

Eta hori da Usurbilgo itunaren aurrean , guk prestatuta geneukan mozio alternatiboa... pentsatzen dut

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): Sí, bueno... yo creo que ésto ya está tambaleada la cosa, tan debatido y tan explicado que no sé si merece la pena perder un minuto de tiempo sobre este mismo tema ya tantas veces, pero bueno... por seguir digamos un poco el desarrollo del propio pleno,
Tal y como está redactada la moción es como anteriormente, otras veces, se ha presentado en otros sitios no ésta, otra ó similares situaciones tanto en Mancomunidad como en el Consorcio y demás, pues adolece de una serie de imprecisiones por no decir no verdades, que la desvirtúan y la... digamos deslegitiman por sí misma, no?
Hay una de las cosas que porque se repite y que podía ser el tema del 80%, si el 80% de la representación política después de las elecciones legislativas han apoyado y han determinado una fórmula de llevar a cabo el tratamiento de residuos urbanos, para éso no es bueno el 80%, no sirve, el 20% es lo que hay que poner en marcha y sin embargo para la recogida sí el 80% es muy bueno y el 20% es malo, o sea que, se entienden las cosas según le dá la gana a uno, pero no sobre la realidad, si el 80% es bueno, es bueno para un lado y para otro, por lo tanto, lo primero que hay que hacer es respetar ése 80% eh? y en este caso la minoría, como tal minoría, si no busca ó tiene los apoyos suficientes tendrá que respetar lo que las mayorías han puesto en marcha, éso en primer lugar, en ningún momento me refiero... el criterio... la gestión de residuos de garantizar la salud de los guipuzcoanos, no creo que nadie ni con los residuos ni con nadie, actúe en contra de la salud de los guipuzcoanos, pero bueno.
Vamos a ver, rechazar la vía de la incineración es lo que conlleva en realidad todo el contenido de todo lo que habeis escrito en esta moción, no es otra cosa, no es más que éso, y os seguis olvidando ahí que la recogida selectiva tal y como viene recogida no se dice cómo sino selectiva, puede ser de una manera u de otra, se ha repetido hasta la saciedad que las dos son complementarias pero que ninguna de las dos, ninguna de las dos, evita la fracción –resto- y ésa es la que no quereis ver por ningún lado, y ésa fracción –resto- tiene que tener un tratamiento, ya no es –x- incineración ó como lo querais llamar, vertederos desde luego no, porque

no están permitidos en Europa éste tipo de vertederos, para tirar éso ahí, luego habría que buscar una solución, la solución está para el 80% de la representación política del Territorio Histórico de Gipuzkoa está en la incineración, previo el tratamiento correspondiente del biosecado y demás y todo lo que conlleva éso, por lo tanto, vuelve a ver otra inexactitud que ya digo que es interesada y por lo tanto no merece la pena discutir más.
Una moratoria sabeis que es inviable en principio, porque ya estamos por encima de lo que teníamos que cumplir con la Ley de la Directiva Europea en cuanto al cierre de vertederos y estamos manteniendo unos vertederos precisamente por el retraso que llevamos en la gestión de residuos, a ver cómo se pide una moratoria más cuando no estamos haciendo los deberes, aunque creo que algunos sí lo estamos haciendo, otros no, otros están poniendo piedras,
En cuanto al coste los 580 millones, vuelve a ser inexacto, no vale 580 millones la incineradora, hay 580 millones de inversión en Garbigunes, en Biosecados, en Plantas de Compostaje, en Plantas de Clasificación, en todo tipo de lo que supone y ya lo he explicado en más de una vez el tratamiento integral de los residuos urbanos, que no solamente es la recogida, la recogida es una parte, una parte se puede considerar más pequeñas ó mayor, pero una parte de la gesitón integral y puede hacerse tranquilamente como quieran los Ayuntamientos, pero éso que le corresponde al Ayuntamiento y lo quiera hacer de una manera u de otra con la aprobación del Pleno correspondiente de ese Ayuntamiento, lo puede hacer, pero no tiene nada que ver con el resto de la gestión que ni es su competencia, ni mucho menos, por lo tanto, se está tratando de imponer un sistema desde la competencia municipal a instituciones superiores como pueden ser la Mancomunidad, el Consorcio, la Diputación y demás y se obvia incluso las normas forales de la propia Diputación que dicen cómo se tiene que actuar y lo hemos aprobado con ese 80% que vosotros no valorais.
Digamos, por no seguir más en el tema, se recoja como se recoja en la fracción –resto- no la elimina nadie, a lo mejor dentro de unos años somos capaces de reciclar hasta lo que vamos... lo que hoy es impensable reciclar y podemos estar comiendo la basura que reciclemos, ¡no lo sé! Pero hoy por hoy desde luego no es posible, por lo tanto, como tenemos una fracción –resto- que hay que tratar y ateniendo a unas normas eh? pues aplicamos una fórmula de las que consideramos que es la más idónea en este caso, ya que los vertederos están ya digo fuera de lugar.
Si verdaderamente sin entrar ya en el tema de la tecnología que pueda tener esta incineradora cuando se monte, que desde luego vá a tenerla, la última que esté en el mercado en todo momento, yo no entiendo como los Europeos son tan imbéciles, por no llamarles otra cosa, que permiten tener las incineradoras en los centros de las poblaciones que se aprovechan del agua caliente que produce la incineradora para que no le cueste a los

vecinos que lo ponen cerca de los centros de grandes productores para aprovechar y más fácil que llegue la materia orgánica y poderla hacer el compostaje, en fín, deben de ser imbéciles que están haciendo éso, ya durante veinte años y que lo están haciendo tan mal, que nosotros nos vamos a incorporar aquello que no saben hacer, llevan veinte años haciéndolo y hasta ahora que yo sepa, no es que no haya pasado nada, sino lo que han hecho ha sido dar un tratamiento integral a los residuos, cosa que no estamos haciendo en Gipuzkoa.
Se podía seguir mucho más pero creo que no dá lugar, creo que hoy venía en el periódico donde la Mancomunidad de San Marcos, dirigida de otra manera la que hasta ahora pues está levantando, digamos, conflictos jurídicos que no tenían sentido, todos los demás se han perdido por parte de quien los ha planteado y demás, pero se insiste, se insiste por no respetar el 80% y querer imponer ese 20% por encima de todo, pues alguna vez habrá que empezar a pensar con la cabeza y con los pies que el 80 es más que el 20, por lo menos hasta ahora también, mañana a lo mejor no, pero hoy por hoy sí.

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. (ARALAR-ALTERNATIBA): Bueno, nik usten dut, honek laburtzen duela, zenbat diru bideratzen den bizrziklapenari eta zenbat diru bideratzen den errauskailua eraikitzeari, eta residuak horko hondakinak ateratzen direnak beste zabortegi... oraindik ere kutsakorragoa, o sea que peligrosoagoa sortzen du eta gizakintzago ez bada kaltergarria, nik ez dut ulertzen orduan zergatik inork ez duen nahi bere etxe inguruan, zeren, denak orduan bai mobilizatzen direla, eta egia da gai hau asko hitz egina da eta bakoitzak bere iritzi garbia daukala, eta eztabaidak ba... bueno azkenean inposaketa? inposaketa gaur egun... inposaketa hitza erabiltzekotan da administrazioak ez duela benetako aukera ematen behar den bezala birziklatzeko.

ALKATE-LEHENDAKARIA.(EA).: Andoniri hitza eman aurretik, gure posizioa klarifikatzeko, gure ustez direktriz batzuk edo irizpide batzuk jarraitu beharra daude gai honen inguruan, alde batetik planifikazio egoki bat eduki behar dela eta diogu planifikazio egokia jakiteko zenbat den gaur egun dagoen basura eta zenbat den, hain zuzen ere errauskailurak permititzen duen basura kopurua eta baita ere Gipuzkoako Lurraldean zenbateko basura, zenbateko zakarra pentsatzen dugun eramango dugula, ez?
Horren ildotik ez dugulako ulertzen gaur egun incineradorak daukan edo proiektatuta dagoen incineradorak daukan kapazitatea berez, Gipuzkoan sortzen den zaborra baino ere askoz haundiagoa delako, ez? Eta zentzu hortan iruditzen zaigu irizpide ekonomikoen arabera egindako incineradora

bat dela berez asetuko lukeen bertako zerak .... asetuko lituzkeenak baino ez?
Edozein kasutan, horregatik diot planifikazio bat behar dela,
Bigarren dauden gestio eredu berriei ere, hemen egin behar zaiela, jakiteko zein diren gestio mota horietatik eratortzen diren emaitza desberdinak, izan ere PIGRUG-ak egin zenean ba... bueno sistema batzuk oraindik ezartzeko zeudelako eta gaur egun ikusi ditugu sistema batzuk ezarrita daudela eta sistema horiek ekartzen dituzten emaitzak ere ba... interesgarriak direlako baita ere, ondoren bilatzen den zakarontzi guztiarekin edo... horrek portzentaia asko jaitsiko lukeelako, eta noski nola ez baita ere bueno... gizartearen eta Gipuzkoarron partehartzea ezin bestekoa da prozesu guzti hauetan, normala den bezala, ez?
Egia da, 2001eko 1481/2001eko Errege Dekretuak dioenaren araberako errauskailua egingo balitz lortuko litzakeela, bai errauskailu hau eginez gero bai eta funtzionamentuan edo iragarrita dauden Zabalgarbi e.a. daudenekin lortzen dela, hori egia da, baina lehen esan dudan bezala baita ere kontuan izan behar dugu ba... zein beste eredu dauden martxan jarrita eta konkretuki atez-atekoari buruz ari gara, ez?
Hala eta guztiz ere nahiz eta gu filosofiarekin erabat ados gauden, erabat baieztapen borobilegia iruditzen zaigu, bapatean, errauskailurik ez dela behar, beste gauza bat da ze.... motatako errauskailua behar den eta ez den, baina bapatean eta aldez aurretik eta modelo guzti horiek eta modelo horietatik eratortzen diren emaitzak kontutan izan gabe aldez aurretik esaldi borobilegia eta ausartegia dela iruditzen zaigu esatea, bapatean, errauskailurik batere ez dela behar, beste gauza bat da ze nolako erraukailua eta norentzat, hori da gure postura.
M. Eugenia,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Bai, bueno... pixka bat bueratik hasteko, Emilianokin, Emilianori edo Alderdi Sozialistari erantzunez hasiko naiz, bueno... niri behintzat iruditzen zait eztabaida honen aurrean... en cuanto a contestar, baina bueno...

ALKATE-LEHENDAKARIA.(EA).: No, no es él ahora, eh?

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): Sigue, sigue, tranquilo, sigue...

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Bai, intentzioa neukan jarraitzeko eta jarraituko dut, bueno... eztabaidaren aurrean nola

kokatzen garen edo ez, garrantzitsua da, nik usten dut eztabaida garrantzitsua dela herritarrak arduratuta daudela gai honekin eta herritarrak badutela zer esana eta entzunak izatea nahi dutela.
Gai honen inguruan hitz egitea denbora galtzea dela, gai honen inguruan hitz egiteko orduan hankekin pentsatzen utzi eta buruekin pentsatzen hasi behar garela, gai honen inguruan Frantsesak ba.... ez dakit, ze hitz erabili duzun, baina ez zen oso hitz fina, ba... ez dakit, nolakoak direla esatea, bueno.... niri iruditzen zait, ez dakit, guk ere burua erabiltzen dugula pentsatzeko, guri denbora galtzea ez zaigula gustatzen eta gurpilean makilak jarri ez, Herri desberdinetan eta ekimen desberdinekin demostratzen ari gara beste kudeaketa mota bat ere posible dela eta herritarrak soluzioaren parte direla eta ez hartzaile edo guk esandakoaren ondorio hutsak, ez? beroiek sortzen dute eta sortzeko moduan ere soluzioa dago, beraz, niri behintzat iruditzen zait eztabaida hau egiteko, ba... ez dakit, gogo gutxi baldin badago, ados! Baina behintzat guk gogoa badaukagu eta jarraituko dugu egiten behar den guztietan eta gustatuko litzaiguke ba... gure, gurekiko ba... zuekiko eskatzen duzuten errespetua ere edukitzea, orain ez dela gutxi, hemen hortaz hitz egiten egon gara eta errepikatzen dut, guk ez dugu hankarekin pentsatzen eta ez dugu pentsatzen Europearrak ez dakit nolakoak diren ere ez,
El periódico decía, ez dakit, zer periodiko zen, nik usten dut periodiko bat baino gehiago zela, akaso Diario Vasco izango zen, akaso el periodikotaz hitz egiten dugunean normalean, El Diario Vasco izaten da, eta bueno... El Diario Vascoren linea editoriala ba... denok jakin badakigu zein den et bueno... el periódico izango da baina gauza gehiago irakurtzea ere ondo etortzen da, ba... iritzi ahalik eta ba... jantziena eta zabalena eduki ahal izateko zeren komunikabide bakarretik elikatuz gero ez gabiltza, ez gabiltza ondo.
580 miloi gezurra dela, ez dela 580 miloi bideratuko. Ba... ez nago, ez nago ados, 580 miloi eskatu dira eta hontarako errauskailua eje printzipal bezala duen kudeaketa eredua martxan jartzeko ba... 580 miloiko zorra onartzera edo goazela dirudi. Kontua da nola erabiltzen diren 580 miloi hauek, ez?
Esan zaigu prebentzioa, gaika biltzea, organikoa berezita biltzea eta ezin dena birziklatu, ezin dena berrerabili ba... erre egin beharko dela eta beti frakzio bat egongon dela eta frakzio hori ba... errauskailuan kudeatu beharko dela, ez? baina errauskailua nola ez, azkenengo irtenbidea da, ezinbestean erre beharra dagoena, kontua da, begiratzen baldin badiogu Foru Aldundiak, berak, publikatu duen ba... Plan eta intentzio horiei eta aurrekontuei prebentzioan hiru miloi euro bideratzen ditu gaikako bilketarako hiru miloi euro bideratzen ditu prebentzioa esaten duenean, kontzientziazio kanpainetarako hiru miloi euro, gaikako bilketarako hiru miloi euro eta errauskailua egiteko hirurehun miloi euro baino gehiago, errauskailu planta bakarrik, gero, ondoren kontzientziatzeko modu berezia

erabiltzen du Diputazioak, zeren herritarrek zintzo jasotzen duten organikoaren %40a zabortegira botatzen du ondoren, orduan herritarrak organikoa jaso dezaten diru-publiko bat jartzen dugu, mekanismo batzuk jartzen ditugu eta ondoren daukagun kompostaje planta bakarrak ez duelako ematen herritarrek biltzen duten organiko guztia behar bezala tratatzeko, jasotako %40a zabortegira, horrekin, irudi ezin hobea eta kontzientziazio ezin hobea ematen ari gatzaizkio herritarrei, balorizazio energetikoaz hitz egiten dugu, baina kontua da, erretzen ditugun lehengaiak sortzen erabili den energia baina gutxiago lortuko dugula, esan nahi dudana da, hor ditugu lehengai horiek berrerabiltzen lehen gai horiek balorean jartzea izango da berriro ere eta lehengai horiek sortzea, berez... ondoren sortuko litzatekeena baino gehiago kontsumitu dute, orduan hor balorizaziorik ez dago, hor dago kontsumo eredu lineal bat non gero eta rekurtso gehiago behar ditugu, gero eta energia gutxiago sortzeko eta hor egin behar duguna da beste eredu zirkular bat martxan jarri eta lehengaiak ba... kate... kontsumo katean mantendu beharko genituzke gure mundua ba... ez duelako ematen, guk eskatzen diogun guztia eta egun batean geratu beharko gara.
Isurtzearekin bukatzea omen du helburu, hala esan zuen, Carlos Ormazabalek irailaren 21ean, Zumaira etorri zenean ere eta ordutik hona ere askotan ba... entzun dugu errauskailuaren eredua defendatzen duten ordezkari politiko askoren ahotik. Isurketekin bukatu behar dela, baina esaten ez dena eta oraindik argitzeke dagoena da errauskailuak ere isurketak sortzen dituela!, hor daude errefusak eta hor daude erraus toxikoak. Errefusak izaten dira zabortegira bideratzen den bolumenaren % 20 edo 25a eta erraus toxikoak beste %5a. Erraustegia beraren filtraziotik ateratzen diren erraus toxikoak, oraindik ez dugu esan eh? nora bideratuko ditugun erraus toxiko horiek? Nonbaiten zerbait irakurri dugu, Gipuzkoako Herri txikiren baten akaso zerbait egingo da, eta bestela igual Extremadurara bidaliko ditugun hemen nahi ez ditugun erraus toxikoak, hori ere entzun dugu eta, baina ez da egia erraustegiak zabortegiak iztea dakarrenik, ez? beste zabortegi berri batzuk ireki beharko dira arriskutsuagoak eta sortuko diren zaborrak, sortuko diren errautsak oso kutsagarriak dira eta esatea zabortegiak itxiko direla, ba... ez da egia esatea, eta beraz, guri iruditzen zaigu ba... aldamenean daukagula eredu posible bat hori landu eta esploratu gabe behar bezala zein erraustegi eraiki behar den erabakitzea, niri behintzat temeridade bat iruditzen zait eta kuriosoa da eh? askotan entzun izan dugu eh? nola da... –profeta en su tierra- ez inork... inork ezin duela izan edo... Usurbilen lortzen ari diren emaitzak direla eta Espaina osotik ari dira informazioa biltzen eta Espaina osotik, Madriletik, Asturiasetik, ari dira interesa jartzen eta badirudi asko gustatzen ari zaiela ikusten ari direna, baina hemen, ez dakit, badirudi beti ba... politikoki edo politikarekin nahasten diren gaiak ba... azkenean... ez dakit, ba... nirea beti bestearena baina hobea behar duela eta ni benetan,

gustatuko litzaidake ba... datuetara erreparatu zeren, Europan ere atez-ate biltzen dute, Italian biltzen dute atez-ate, Alemanian biltzen dute atez-ate, Estatu Batuetan biltzen dute atez-ate, Hiriburu handietan biltzen dute atez-ate Kalifornian erratuta ez baldin banago, Hamburgon, Italian, San Franciscon leku askotan biltzen dute atez-ate eta gu ba... atez-atekoarekin edo atez-atekoaren alde egiten baldin badugu eta errauskailua ba... geratzeko eskatzen baldin badugu beste kudeaketa eredu batzuk posible direla esanaz, hori esaten dugu ba... buruarekin pentsatzen eta osasunean pentsatzen, beraz, ba... nola ez guk aurkeztu dugun mozioa ba... onartzeko ekarri dugu,

ALKATE-LEHENDAKARIA.(EA).: Azkenengo turno bat irekiko dugu, eta ia bozkatzera pasako gara, Lide,

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND. (EAJ-PNV): Atzetik hasiko naiz, beste batzuk atez-ate eta hain ona baldin bada, lau urte eduki dituzu atez-atea Zumaian jartzeko?
Zu zara bultzatzaile nagusia atez-atekoa pleno hontan, behintzat, eta ordezkari bezala, ez dakit, lau urte galdu dituzu?
Baina bueno... hori atzetik hasteagatik.
Zuei... zuen edo Usurbilgo Itunari buruz, ba... komentariotxo batzuk ez? Oso gustokoa duzue osasunari buruzko ba... ez dakit, ez? zalantzak eta jartzea, ez? eta benetan hori arriskutsua da, baina benetan faltsua da eta gezurra da errauskailuak ba... arriskutsuak direnik osasunerako ez?
Eta ez hori nik edo guk esaten dugulako, baizik eta bai Eusko Jaurlaritzako Osasun sailak eta bai Organización Mundial de la Salud eta beste hainbat Erakundek hori horrela adierazten dute eta hori erabat onartzen dute, ez dela kaltegarria, ez dago ba... Emilianok ere pixka bat komentatu du, Parisen, Sena erdi-erdian dago ba... oso errauskailu ikaragarria baina benetan kanpotik ematen du kultur-etxea bat gehiago errauskailua baino eta han jendea ba... bere aldamenean dago estetikako enpresa bat eta jendea handik pasatzen da, normal, normal, normal. Hori da ba... ez dakit ze mamu nahi dituzuten sartu ez?
Jarri duzu, Usurbilgo eredua ba... izango balitzake –la panacea- Bueno, ba... desde luego guk argi daukagu Usurbilgo datuak ez direla egiak, manipulatuta daudela eta Usurbilen, Oiartzunen, Hernanin gertatzen dena dela %40ko hondakinak desagertu egin direla. Eta bueno... guk turismo egiten dugu, baina orain sortu dela beste turismo egiteko modu bat, hondakinen turismoa deitzen dena. Eta aldameneko herriak, Urnieta, Astigarraga, Lasartek e.a. jasotzen dituztela herri hauetan falta den zaborra eta proporzio hortan eta hori salatu dute bai... Lasarteko Alkatesak baina baita ere Urnietako Alkateak eta hori horrela da.

Zer gertatzen da? Azkenean, bai Lasarte, bai Urnieta eta bai abarrek ordaintzen dutela Usurbil eta beste abarreko ba... zaborrak eta hori desde luego solidaridade aldetik ez dut uste eredu denik.
Eta %80a zergatik irtetzen da? Klaro esaten da birziklapena %80an dagoela Usurbilen. Klaro % 40a jaisten baldin bada, fracción –resto- eta birziklapen mailak mantentzen baldin badira ratioak igo egiten dira, baina... eske... parte bat jaitsita dago %40an. Orduan hori tranpa egitea da.
Atez-atekoa, hainbeste defendatzen duzun atez-atekoa baina zure Herrian ez duzuna planteatu. Atez-atekoa ez da errauskailuaren edo zabortegiaren alternatiba. Atez-atekoak ba... nahiz eta hipotekiko kasuan, nahiz eta % 80a birziklatu %20arekin zerbait egin behar da. Eta bi alternatiba daude, zabortegiak eta desde luego ba... hasi beharko duzue pentsatzen non nahi duzuen Zumaian kokatu zabortegia, zeren desde luego, Zarauzkoa ondo ezagutzen dugu eta han egunak kontatuta daude, edo bestela errauskailua, besterik, ez daukagu. Gases, bueno... ingurumenari egiten zaion kalteak eta horrelakoak ba... bueno, ez da egia eta ez da nik esaten dudalako, errauzkailuak askoz ere ingurumen aldetik askoz ere sostenibleago eta hobeagoak dira zabortegiak baino eta ondo tratatu ezkero ba... emaitzak oso onak ematen dituzte, eta esaten dizuet ez dela nik esaten dudana, baizik eta Alemaniako berdeak esaten dutena. Esaten dutena eta hemen nahi baduzue irakurriko dizuet, baina bueno.... irakurriko dizueta, nahi baldin baduzu, erderaz dago eh? baina bueno...
"En conclusiones, beraien txosten baten, konklusioetan jartzen dute:
Evitar los residuos y las cotas de reciclaje no puede ser suficiente para resolver los problemas relacionados con los residuos urbanos. Esto es sólo una parte integral de la solución. El reciclaje tiene límites, por ejemplo: plástico, productos higiénicos como pañales y otros, incluso los productos reciclables se convierten en residuos después de su uso, problemas de infra reciclaje ó down-cycling. El uso de la tecnología más avanzada disponible para la incineración de desechos residuales tienen menor impacto sobre el medio ambiente y el clima que los vertederos. El compromiso medio-ambiental es un requisito importante para el desarrollo de tecnologías de incineración más límpias."
Beraien txosten luze ondoren, horiek dira beraiek egiten dituzten konklusioak edo ematen dituzten konklusioak.
Baita ere, ez da egia ba... "sobredimensionatzen" dela errauskailuak eta horren produkzioa zenbat eta gehiago hobeto dela, hori ez dakit. Guri behintzat orain dela denbora da eskatu zigutela datuak, zenbat... zabortegian zenbat hondakin sartzen genituen zabortegian eta datu zehatzak azkenean incineradora edo errauskailua dimensionatzeko, eta incineradora edo errauskailua dimensionatua dago. Eta bueno, ba... pixkat Emilianok esan duena Europa guztian sistema berdina erabiltzen dute.
Orduan, legalitate aldetik, legalitate aldetik Europak markatzen du ba... lehentasun batzuk, aurrenengoa prebentzioa izango litzake,

Bigarrena berrerabilpena,
Hirgarrena birziklapena,
Laugarrena energia balorizatzeko plantak eta
Bosgarrena ba... zabortegian botatzeko sistema, ez?
Orduan, direktiba marko barruan dago sistema hau eta erabat onartua.
Konpetentziari buruz, Diputazioak edo Foru Aldundiak ez dauka konpetentzia inongo errauskailua egiteko, azkenean Zubietako planta egingo da Gipuzkoako Hondakinen eskutik eta Mankomunitate guztien eskutik eta kontsortzioak edo... egingo duena da, ba... hondakinak Mankomunitateko hondakin guztiak jaso eta horiek denak kudeatu.
Eta lehen komentatzen nizuna, azkenean bilketa bai... konpetentzia herrietako udaletako konpetentzia da. Diputazioak ez dauka hor inongo eskuduntzarik. Gure kasuan gaikako bilketa daukagu Mankomunitatean, baina etxe hondakinen bilketa zuk ondo dakizu ba... Herrikoa dela eta Herriak erabaki dezala ze bilketa modu nahi duen egin. Eta ia... pixka bat bukatzen joateko, datu ekonomikoari buruz, klaro zuek datu potoloa ematen duzue 510 edo...510 miloikoa, zer? 580koa bueno ba... baina ez duzuena esaten da, hor barruan daudela baita ere konpostajeako egingo den Lapatx-eko planta, planta berria, biometanizazioko planta, zabortegi guztien anpliazioa, transferentzi estazioak, horiek guztiak, hor barruan daude, hortaz gain, dago bai... Zubietako planta errauskailua dena eta gastu finantzieroak, orduan ez da dena... ez gara ari bakarrik errausketari buruz hitz egiten, gauza askotaz ari gara hitz egiten.
Eta esan duzu gero, baita ere, nahiz eta errauskailua erabili, badaudela hor hondakin batzuk, sortzen direla hondakin batzuk, bai... sortzen dira, alde batetik dauzkagu eskoriak edo komentatu dituzunak baina eskoriaren irteera erabat estudiatuta dago eta karreteretan e.a. badauka irteera eta hori badaude programak I+D+I-koak eta hori lantzen ari dira eta horri ba... irtenbide bat emango zaie eta gero geldituko litzazke –cenizas- edo parte hori, esan duzuna ba... aho zabalik toxikoak direla, ba... ez dira toxikoak, inerte bihurtzen dira eta gero badaude zabortegiak hortara dedikatzen direnak eta hor botatzeko ba... bueno izango direnak.
Eta nire aldetik, horixe....

ALKATE-LEHENDAKARIA.(EA).: Gauza bat, eztabaida ahalik eta ligeroa izan dadin ez gaitezen errepikatu esandako gauzetan edo beste bateren batek esan baldin badu, eh? behingoz plenoa aurreikusten zela pixkat motza izan zitekeela, eh? bakarrik pixkat aligeratzeko, eh? Venga Emiliano,

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): Procuraré yo ser breve, desde luego no dá para más, o sea que, por lo tanto tiene que ser uno por salero.
Por empezar por alguna de las partes para reducir los residuos no está en la forma de recogida selectiva, puede ser de una forma ó puede ser de otra, para reducir los residuos urbanos en global está, digamos, anteriormente cuando.... antes de producirse porque una vez producido los residuos me dá igual que lo hagas en recogida selectiva que en un contenedor marrón, que verde, que azul ó como quieras si son cinco kilos, serán cinco kilos, los podrás repartir en cinco partes, en diez, en veinte, pero serán cinco kilos, si lo que quiere es reducir que de cinco.... que no sean cinco, hay que reducir en origen y éso no se consigue con la recogida selectiva ni de una manera ni de otra, he dicho anteriormente que son compatibles las dos, nunca se ha discutido éso en el Consorcio, ni en la Mancomunidad, ni en ningún sitio, porque además es una competencia como ha dicho Lide, municipal, por lo tanto lo puede llevar a cabo si es que... lo que sí hemos estado discutiendo, seguimos discutiendo, hoy se ha aprobado, se puede probar en San Marcos y es lo que no estamos dispuestos a asumir, es que si el Ayuntamiento lo quiere hacer, que lo haga si cuenta con la mayoría suficiente ó con el presupuesto suficiente para poderlo hacer, pero que lo haga con el coste de ese municipio y el consentimiento de sus ciudadanos, no como está pasando que ha cargo de la Mancomunidad han hecho la recogida selectivas, que éso es lo que no puede ser.
Ya te digo, se puede hacer en cualquier momento, no reduce para nada y tú me dices que en Europa se hace en Alemania, los verdes han ganado unas cantonales hace poco y no precisamente por decir que no a la incineradora sino por otras muchas cosas, en la incineradora como te ha dicho Lide, la están apoyando desde el principio como un sistema lo suficientemente, digamos, sostenible y adecuado para el medio ambiente en cuanto al tratamiento de la recogida de residuos, no de la recogida, del tratamiento de residuos globalmente hablando, por lo tanto, todo éso pues está fuera de lugar en el sentido de que la recogida selectiva conlleva la no incineración porque en todos esos sitios, yo no he hablado sólo de Francia, he dicho de Europa en general y en Alemania es uno de los sitios donde más hay, hay reciclaje, hay recogida puerta a puerta, hay recogida de otras formas, como puede ser el quinto contenedor, pero las incineradoras siguen estando ahí, es que no se eliminan, o sea, es una mentira que se quiere hacer por mucho que se repita se quiere hacer una verdad pero no es posible, por mucho que se repita.
Como te decía antes, son los Ayuntamientos en Gipuzkoa que yo sepa, hay 88 Ayuntamientos y sólo 4, si lo pone en marcha Antzuola, son los que tienen la recogida puerta a puerta, con esto llevamos que yo haya empezado a trabajar en este tema en la Diputación ocho años, y en ocho años sólo lo han puesto cuatro, fíjate sí éso fuera –la panacea- nadie les

hubiera quitado de poderlo hacer, ni Diputación... ni Mancomunidades... ni nadie, porque la recogida en baja es potestad de los Ayuntamientos, luego no queramos engañar con algo que no tiene posibilidades.
Hablar de los 580 millones, aquí se dice claramente, tú hablas de que se ha solicitado, claro que se ha solicitado ese dinero, pero es que vosotros en la moción hablais de coste y eso es lo que no es real, el coste, porque lo mismo que se parte los residuos en cada una de las fracciones, estos 580 millones también hay que partirlo en cada una de las fracciones para cada uno de los sistemas que conlleva el tratamiento integral de residuos, luego no puede aceptar ésto, aunque me hables tú de que se ha solicitado, claro que se ha solicitado esa cantidad global, pero vosotros decís que éso es lo que cuesta la incineradora y éso no es cierto, no es cierto, se ha explicado incluso en varias comisiones, vosotros no estais en la Diputación pero Aralar, sí, hace poco, hace cuatro días la solicitud... se le dió todos los datos y demás... e insistía en lo mismo, pero si insiste en algo porque no se quiere reconocer, ya digo de 88 sólo 4.
También ha salido lo de la planta de Lapatx, también lo sacó Aralar, y también se le dijo que no es cierto. Hoy por hoy Lapatx es suficiente para lo que se está convirtiendo en... me refiero lo que se está tratanto allí, que mañana tenga que ampliarse porque la recogida aumenta y el número de compost aumenta, pues habrá que ampliarla, pero decir que no sirve, éso es totalmente incierto, porque está sirviendo y con creces.
Otra cosa que ya lo hemos discutido muchas veces, veremos a ver dónde colocamos el compost, porque lo podremos hacer tipo... vamos... mantequilla pura para que se pueda utilizar pero hay que venderlo, porque Gipuzkoa tiene unas limitaciones muy concretas de utilizar el compost, y éso vale mucho dinero hacerlo y para que luego al final si no somos capaces de colocarlo en el mercado tengamos que tirarlo a vertedero ó incinerarlo pues habrá que explicar como somos tan imbéciles que nos gastamos el dinero para quemarlo en la incineradora, que éso sí que sería... éso sí que sería vergonzoso y de juzgado de guardia, vamos...
Se habla también de dependencia que has comentado, dependencia económica municipal, también es incierto! Por no decir que es mentira, eh? Es incierto, porque los Ayuntamientos en este caso te vuelvo a repetir no tienen competencia, no depende de ellos, lo único que depende su recogida las Mancomunidades tampoco tienen... van a tener dependencia económica del coste de la incineradora, se ha explicado por activa y por pasiva en Juntas y en todos los sitios cuál es el tipo de crédito, cómo se tiene, de qué manera, qué tipo de corresponsabilidad hay por las Instituciones en cuanto a la devolución de crédito y demás y en ningún momento, en ningún momento como se dice aquí, consideramos grave la dependencia económica de este proyecto, no hay ninguna dependencia económica municipal de este proyecto, ni en Zumaia ni en ningún otro, luego se está mintiendo descaradamente cuando encima se plasma en un papel.

Que esta Corporación no ha debatido ni ha decidido nada sobre el tema? Lo que tiene que debatir esta Corporación es... si hace la recogida selectiva de una manera u de otra, de acuerdo, pero el resto no es de su competencia, se tiene que debatir donde se tiene que debatir y hay una serie de representaciones ahí que han decidido lo mismo que de los 88 – 4 hacer éso, los otros no! Y éso es así y cuando hablas de respeto, pues éso es lo primero que hay que empezar, ir respetando a los demás para que uno sea respetado, pero si no respetamos absolutamente nada, ni mayorías ni minorías, ni decisiones ni nada, absolutamente nada y si no se pone lo nuestro en marcha lo repito, hoy, mañana, pasado y para lo otro, pues al final lo único que se hace es poner piedras en el camino, retrasar todo pero no servir para nada y encima incrementar los costes de la gestión que éso todavía... éso sí que también tiene melones, entonces yo no voy a alargarme más, yo creo que ya es suficiente, la recogida selectiva se puede poner en Zumaia, cuando lo decida el Ayuntamiento de Zumaia, todo el resto de la moción sobraría, está demás, totalmente,

ALKATE-LEHENDAKARIA.(EA).: Oso ondo, Aitor

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. (ARALAR-ALTERNATIBA): Lehenago, komentatu duzu Lide, hemen, hor ateratzen diren errautsak, keak, eta ez direla osasunentzako txarrak, baina Hondarribiko kokapena zegoenean martxan, han medikuek argudio... osasunen argudioekin lortu zuten handik kentzea, o sea que, benetan badago, badago arrisku bat, badago arrisku bat

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND. (EAJ-PNV): Hombre, arriskua edo ez nahi izatea bere frentean inzineradora bat jartzea,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND. (EAJ-PNV): A ver... aldameneko txaleteko (mikrofonorik gabe)

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. (ARALAR-ALTERNATIBA): Arriskuak, badaude, arriskuak badaude.
Gero esan duzu turismoa basurena, hori kontutan eduki behar dugu, Usurbilen eta toki horietan, beraiek auto-konpostatzen dutela kopuru haundia, ez dakit, hor... zeuden datuetan sartuta dagoen hori, ez dena

kontabilizatzen, orduan turismo hori egongo dela? Ez dut ukatuko, zeren, egia da gertatuko dela, zer kopuruetan? Seguru hainbeste ez dela,
Gero Lapatx-eko zabortegiak, nahiko haundia dela hemen inguruan ateratzen den organikoa kudeatzeko? Hori ariketa erraza da, zenbateko kapazidadea daukan eta zenbat ateratzen den, hori garbi dago, eta konposta? Eta ikusten da ez dela haundiegia, ia... horren zalantza haundiak daude zer gertatzen den hor konpostarekin eta konposta nora eraman? Ez dakigula zer egin konpostarekin? Ba... gure mendietan egiten den basogintzan, matarrasa sistemarekin horrek lurrik aberatsena eramaten du bi edo hiru urteetan, orduan gure mendietan zabaltzeko aukera ona dago eta gainera ateratzen den konposta oso kalitate onekoa da, eta nik ez dut esango besterik,

ALKATE-LEHENDAKARIA.(EA).: Nik nire aldetik, nire turnoa pasatzen dut, Andoni venga.... motz-motzean

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Ez dut uste, ahal izango dudanik,
Bueno, kontua da, Emilianok azkenengo zortzi urteetan, Emilianok dio lau herritan bakarrik jarri dela atez-atekoa martxan eta badirudi Emiliano eta ni, neu, ez garela Gipuzkoa berdinean bizi edo zer gertatu den behintzat, azkenengo zortzi urteetan ez garela berdin akordatzen.
Aurreko legealdian, hego Euskal Herrian hamazazpi udaletxetan bakarrik aurkeztu ahal izan zen Ezker Abertzalea, horietako bat Zumaia izan zen eta aurreko legealdian, hontan, hontan, Udaletxean %50ean baino Herritarrek %80an bakarrik eduki zuten aukera Ezker Abertzaleko zerrenda bati bozkatzeko, beraz, azkenengo zortzi urteak egoera politiko oso berezi batean igaro dira, beraz, azkenengo zortzi urteetan egin diren eta egin ez direnaz hitz egiten hasterako, hori kontuan hartu beharko litzatekeela, gutxienez, iruditzen zait, eta hemen guztiek ez dute jokatu aukera berdinekin, beroien politikak aurrera eramateko, batzuk Udaletxeetan egoteko aukerarik ere eduki ez dutelako eta aukera hori baliatu dute eta distorsio horrek emandako mayoriak baliatu dute batzuk, GHK martxan jartzeko, zergatik, GHK martxan jarri zen aurreko legealdiaren bukaeran, Ezker Abertzalea ez Diputazioetan eta ez Udaletxeetan ez zegoenean. Tolosaldeako Mankomunitatea ez zegoen errauskailuaren alde, eta ez da egon sekula, baina apartheida etorri zenean, kontxo! Orduan errauskailuaren alde Tolosaldeakoak ere, eh? kontxo! Ezker Abertzalea kanpoan utzi digunean, orduan bai, alde! eta legealdia bukatu baino lehen ui!!!! dena martxan jarri behar zen, zeren, akaso distorsio hori bukatzear zegoen eta bukatu zen neurri batean. Eta legealdi hontan Txingudi gehitu da kontsortziora baina Txingudi gehitzeko udaletxeetara eraman behar zen

erabaki hori, eta ez zen eraman zeren distorsio politiko hori ia, neurri batean ekiditzen eta orduan erabaki zen kontxo! Kontxo! ez dugu arriskuan guztia jarriko hau GHK-ren Batzar Orokorrean erabakiko dugu eta ez dugu eramango udaletxez-udaletxe, Mankomunitatez-Mankomunitate, eta hori sententzia firme baten bitartez Txingudiren inkorporazioa anulatuta dago eta GHK-ak hartu dituen erabakiak errausketa ahal bideratzen duen finantzazioa lortzeko erabakia anulatuta dago, sententzia baten bitartez, rekurreablea dena, hori bai, baina momentuan ez da rekurtsorik aurkeztu eta hori ere horrela da, beraz ba... egoera politikoak ematen dituen hemen mayoría batzuk eta minoría batzuk, baina momentuz behintzat, zoritxarrez, egoera politikoa ez da Herritarren borondatearen isla eta hori horrela izateko ba... lanean ari gara eta saiatuko gara hori lortzen eta ikusiko da benetan Gipuzkoako Erakundeek Gipuzkoarren nahiak edo Gipuzkoarren hitza islatzen dutenean ze portzentai dauden eta zer erabaki une, baina hemen arbitro alde jokatzen dugula partiduak irabaztea oso erraza da, kontua da azkenengo zortzi urteetan arbitroa, zelaia, guztia alde eduki dezutela eta hala ere lau Herritan aukera badagoela demostratu dugu.
Zeinek ordaintzen du ba... errauskailua? Herritarrek ordainduko dute, eh? errauskailua.
Badakizu zeinek jarriko duen tasa? Zaborraren tasa? Udalak ez du jarriko, eh? Banketxeek jarri behar dute, tasa zein den. –Suficiencia Económica-ko printzipioaren bitartez. Prestamoa eman ahal izateko, -Suficiencia Economikoaren- printzipioa inposatu digute eta hori da gure eskumenen urraketa nabarmena, guk ez dugu jarriko Zumaiarrek ordaindu behar duten tasa, ez! Banketxeek jarriko dute tasa hori, eta ez baldin badugu hori egiten FOFIM-etik kenduko digute diru hori, orduan errauskailua ordaintzera behartzen gaituzte, nahiz eta ez dugun erabiltzen eta orduan Zumaian beste sistema bat jarri nahi baldin badugu zer egin behar dugu?
Errauskailua ordaindu eta gainera sistema berri baten kudeaketa ordaindu? Orduan tasa zenbatekoa jarri behar digu?
Errauskailua ordaintzeko tamainakoa eta atez-atekoa edo beste kudeaketa eredu bat aurrera eramatekoa? Herriak ordaindu beharko du! Eta tasa ez du udalak jarriko. -Banco Europeo de Inversión- jarriko du tasa eta hori onartu da, 21 urteetan tasak ez dute Erakunde Publikoek jarriko, Bankak jarriko ditu tasak, eta hori oso gogorra da eta hori Alderdi Sozialista batek onartzeak eta babesteak, ba... bueno sozialismotik nahiko urrutik dagoen erabaki bat da.
Gero, hemen, ez dakit, gauzak esaterakoan nik usten dut kontuan hartu behar dela baita ere, nondik datorren norbera, zein den, zer errepresentatzen duen eta bueno... gauzak esaterakoan ba... behintzat hori, nik usten dut garrantzitsua dela argi edukitzea, zergatik, gauza batzuk esaten direnean behintzat, kontraesanak edo zehaztasun oso gutxiko adierazpenak egiten dira eta niri iruditzen zait hori ba... esatea gauden karguetatik eta gauden lekuetatik ba... batzuetan beste batzuetan baino, ez

dakit, okerragoa dela. Errautsak ez direla toxikoak esan duzu, Lide, ba.... –autorización ambiental integrada- eskatzeko Gipuzkoako Hondakinen Kontsortzioak bideratu duen dokumentuan Eusko Jaurlaritzara, pikatuz gero eta sartuz gero, errautsak -muy tóxico- eta –vertido controlado- eta ez dugu guk esaten eh? hori –autorización ambiental integrada- eskatu dutenak errauskailuaren proiektua aurrera eramaten ari direnak, beroiek beroien dokumentuan esaten dute, eta ez guk, eta gaur egun errautsak toxikoak ez direla esatea, benetan, ba... ez dauka horrek bai ez daukala ba... ez hanka eta ez bururik.

Gero, oso erraza da besteak egiten dutenez hitz egitea, norberak egiten duena aipatu gabe, ez?

Usurbildarrek turismoa egiten dute orain zaborrarekin eta Lasarten ba... igo omen da zabor kopurua jasotzen dutena, ez da egia! Lasarten egon den igoera edo jaitsiera, Lasarten ez dute nabarmen du, ba... beste herri baten zaborrik gora egin duenik. Lasarten beste herri batzuetan bezala, kontsumoaren ba... geldiunearen eta krisiaren ondorioz zabor tona kopurua murriztu egin da, beste herri batzuetan bezalaxe, eta ez da efekturik egon ba... Usurbiletik turismo... zaborren turismoaren efektua, hori ba... bueno errepikatzen da eta esaten da, baina bueno azkenean ba... niri hitza zurearen kontra dihoa baina hortik ez dugu asko abantzatuko, baina besteak egiten dutena eta besteek egiten dituzten turismoetik haratago eta turismoa bukatuko litzateke Lasarten atez-atekoa jarrita, adibidez, eta %80a jasoz, bereizita, horrekin ia turismorik ez litzateke egongo, baina norberak egiten duena ere ba... ondo dago ez? esatea eta bueno... ia ke dakigun esango dugu, zergatik, ez dugu gehiegi hitz egiten guk egiten dugunaz eta akaso gehiegi hitz egiten dugu besteak egiten dutenaz.

Udal Elkarte hontan, bostgarren kontenedorea daukagu martxan organikoa biltzeko eta zenbateko organiko bilketa egiten dugu ba? Ez? Edal Elkarte hontan? Dimentsionatuta dago zerbitzua herritarren %15ak parte hartzeko, bostgarren edukiontzian. Gehienez, herritarren % 15ak hartu dezake parte, horrek esan nahi du %85aren zabor organikoa, zabortegira dihoala zuzen-zuzen inongo tratamenturik gabe, eta hori, berez, legea betetzen duela esaterik ez dago. Hala ere, %15erako dimentsionamentu hori ez da betetzera ailegatzen.

Kontua da, gure Udal Elkartean bostgarren edukiontzia kudeatzeko urtean 120 mila euro bideratzen ditugula eta zabortegira iristen diren zabor organikoak sortzen dituen efekto kolateral bat tratatzeko kaiuak, zabortegira joaten diren kaiuak, organikoak behar bezala jasotzen ez direlako 130 mila euro gastatzen ditugu, orduan diru gehiago bideratzen dugu kaiuak uxatzera organikoa kudeatzera baino. Nik behintzat nahiko harrigarria. Ontzi arinak, ontzi arinak biltzen daramazkigu ia... hamar, hamaika urte, borondatezko bilketa bat da, gure Udal Elkartean ontzi arinen bilketa %23tik behera dago, beste guztia zabortegira dihoa, beraz,

hor ere ba... ez dakit, harro sentitzeko moduan ez gaude, eta beira berriz, beira nahiko erraz bildu daitekeen zerbait irudituko zaigun arren, %30etik gora biltzen da beira, bereizita, beraz, besteek egiten dutenaren inguruan hitz egitea oso, oso eragiketa erraza da, baina ondo egongo litzateke norberak egin duena ere irakurri eta besteei denbora galtzen duten edo ez, esan baino... ikustea zer emaitza lortzen ari garen gure esku dauden erakundeetan.
Zabortegia zein egoeretan denok, egon den badakigu, eta zein egoeretan dagoen ere bai. Bertako lixibatuak, bertako eguneratzeko lanak nola luzatu, moztu, berriz ere luzatu, zabortegiaren bizitzarekin zer egin den ba... benetan harrigarria izanda. Gaur egun esaten zaigu 2013a dela, orain dela urte batzuk 2009a, gero 2011, gero 2013... kiniela oraindik ez dugu asmatu, 2015a, nik usten dut, ez digula inork kenduko, dena den, zabortegi hori, noski, azkenengoetan dagoela, gaur egun ekartzen zaion zabor kopuru erritmoa jaisten ez baldin badugu.
Jaitsiko bagenu?  2015a eta urte dexente gehiago. Baina gaur egungo aporte mailarekin jarraituz gero, inposible.
San Marcoseko zabortegia bere biziraupena ia... bukatuta dago, itxita dago, baina San Marcosen, adibidez, ireki zenetik gaur egunerarte atez-atekoa erabili izan balitz da... eragiketa matematiko bat eh?  erabili izango balitz inguruko herrietan kudeaketan, errefusa edo zati hori zabortegira bota ezkero, San Marcos %10ean beteta egongo zen gaur egun, beraz, begira ze biziraupen edukiko duten zabortegiek frakzioak behar bezala jasotzen badugu.
Berdeak ere ekarri ditugu mahi hontara eta berdeek Frantsesek, ui... Alemanek esan zutenaren ingurun hitz egin duzute, bueno... nahi baldin baduzute pasatuko dizuet berdeek bidalitako prentsa ohar bat, hemen zer nolako irakurketak egiten ziren ikusiaz, beroiek egindako ekarpenek ekarpenetaz zeren Donostira ekarri zitzaien eta beroiek argitu nahi izan zuten erraustegia ez dutela babesten eta ez dutela babestuko, eta bai, bai, bai,  bai, bai, bai baina bere prentsa oharra berak bidalitako hau,  Berdeen arduradun nagusiak bidalitako prentsa oharra badaukat eta pasatuko dizuet, kontua da... batzuetan gauzak ulertzeko modu ezberdinak daudela, baina berak espreski ikusirik ze... interpretazio egiten ari ziren hori gezurtatu nahi izan zuen eta gezurtatu zen baita ere publikoki.
Eta bueno, konpostaje planta berriak eta biometanizazio planta ere egingo dela komentatzen duzu. Konpostaje planta berririk ez da aurreikusten, eh? Lapatx haundituko da baina berririk momentuz ez. Eta biometanizazioan, nik dakidala momentuz geratuta dago eta momentuz egingo ez dela esaten dute, zeren, egin behar zen lekuan falla geologiko bat agertu omen da, ladera baten desprendimenduak omen daude eta gune hortan egiterik ez dago eta hori bezala, beste kontu dexente agertu omen dira, beraz, nahiko harrigarria da nola lortzen den una –autorización ambiental integrada- gero ondoren falla geologikoak agertzen diren eremutan, baina bueno... hori ere

lortu zen eta biometanizaio planta momentuz geratuta dago, eta bueno... ez dakit, ez dut uste inork konbentzituko dudanik eta ez dut uste inork konbentzituko nauenik, baina bueno... nahi badugu luzatzen jarraitzen dugu, baina... animo

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND. (EAJ-PNV): Ba... pixka bat, bai,

ALKATE-LEHENDAKARIA.(EA).: Bozkatzera, pasako gara?

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND. (EAJ-PNV): Ez,

ALKATE-LEHENDAKARIA.(EA).: Labur, laburra, eh? Baina laburra eh? Lide, venga...

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND. (EAJ-PNV): Atzetik hasita, ez dakit egingo diren edo ez, baina aurreikusita daude, eta 580 miloietan, horiek hemen daude! Eta nahi baduzu ikusi eh?

Txingudiri buruz, Txingudi ematen dugu, joe! Txingudi, de repente kontsorzioan sartu zela, berak nahi zuelako, Ez! gogoratzen baldin bazara, gure Mankomunitatean ere, Txingudiren, Kontsortzioaren onarpena pasa zen, eta gurean ez zen onartu, gehiengo absolutua behar zelako eta ez geneukalako, baina besteetan onartu zen. Eta hor orain egiten ari dena kontsortzioko bilera guztietan da: Txingudirekin edo Txingudirik gabe eta botazio guztiak horrela esaten ari dira azkenengo batzarretan. Hala ere esan behar da, Txingudirekin edo Txingudirik gabe, erabat PIGRUG-en aldekoak eta inbertsio hauen aldekoak irtetzen duela, Txingudirekin edo Txingudirik gabe.

Tasari buruz, tasarekin joe! Berriz ere hiz beldurgarriak Banketxeak jarriko dutela dirua edo tasa, azken finean, hori guztia progresio guztia eginda dago eta zabor kopurua ba... bueno birziklapen kopurua eta zabortegietara dihoana eta horrela mantentzen baldin bada, Banketxeek ez dute jarriko tasa, gaur egungo tasa IPC-a gehituaz joango da, eta hori da asmoa.

Organikoari buruz, nik... –hombre- organikoari buruz, nik usten dut gure Udal Elkarteak zerbait egin baldin badu dela apustu bat, xumea? Bueno... baina beste baino gehiago. Guk bost herrietan sartu dugu, eta orain produktore haundiekin sartzera goaz, berehala, inork ez du egin hori, eta diru kopuru txikia destinatzen dugula? baina nik usten dut zerbizioa nahiko zabalduta dagoela eta teknikariak esaten dutenez, aurtengoarekin

inplantazio erabatekoa bost herrietan. Hemen dauzkat datuak, 2008an 245mila kilo jaso genituen, baina 2010ean, ez 2009an hori, 2010ean doblatu egin genuen 410mila, gutxi? Asko? Doblea, eta progresio hortan jarraitzen baldin badugu, zerbait egingo dugu eta hori gure apustua hasieratik izanda.

Eta bueno... benetan asko kezkatzen nau zure zabortegien defentsa, gu bilera askotan egon gara eta ez duzu ezer egin zabortegia ba... erabat txukun edukitzeko eta zabortegiari behar zen bultzada emateko, beti izan dira pegak eta zure aldetik ez dut.... orain ematen du zabortegiak direla irtenbideak! Ba... ez dut hori somatu azkenengo urteetan zure aldetik.
Besterik ez,
Ah! Eta Berdeena, barkatu berdeena ez dut ezer asmatzen, hemen dago bere izena eta ze kargu zeukan eta etorri ziren hona eta egia da, ba... nik ez dakit, edo mehatxu asko edo zer egon zen eta prentsaurreko hori gero eman zutela, baina esandakoak hemen daude eta edozeinen eskura.

ALKATE-LEHENDAKARIA.(EA).: Bueno bukatzeko, bateren batek zerbait esateko badauka?

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA JNA. (TALDE MISTOA): Nik,

ALKATE-LEHENDAKARIA.(EA).: Venga... minutu bat

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA JNA. (TALDE MISTOA): Bi gauza, bai Alderdi Sozialista eta bai PNV-ri biok esan duzue berdina,
Alde batetik, Zumaian esan duzu ba...Andoniri esan diozu baina bueno, aber... zergatik ez dugu planteatu eta baita ere Emilianok esan du beharko litzatekeela herritarren oneritzia, noski, herritarren oneritzia beharko litzateke Zumaian eta Gipuzkoan, Gipuzkoan inork ez du galdetu errauskailua nahi dugun edo ez, inork ez du galdetu! Hori ez da demokrazia, hori da inposatzea, galdetu? Alde ateratzen bada! Alde! baina ez da galdetu eta segurazki ez da galdetuko eta
bigarrena biok baita ere esan duzue 580 miloi horiek ez dela kostua eta gutxiago dela, hor ez dakit, zenbat gauza daudelako sartuta, baina nik galdetzen dut zenbat, da ba?
Bateren batek badaki zenbat den?
Eta noski, gastu finantzieroa sartuta, zeren gastu finantzieroak kostuak dira, baita.

Erraskailuak balio duena! Bere gastu finantziero eta guzti,

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND. (EAJ-PNV): Errauskailuaren inbertsioa da 223.446,5 euro.

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): IVA-rekin?

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA JNA. (TALDE MISTOA): Berrehun eta hogeitahiru......

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND. (EAJ-PNV): 223 miloi laurehun.....

ALKATE-LEHENDAKARIA.(EA).: BEZ-a barne, Lide, galdetzen due hemendik,

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND. (EAJ-PNV): 223 miloi, BEZ-a aparte

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): BEZ-a aparte eta finantzazioa aparte, kostua

ALKATE-LEHENDAKARIA.(EA).: Bale, bueno...
Bozkatzera pasako gara,
Venga Emiliano, motz-motza, pero corto, corto, corto venga...

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): Decía que si me dejabais era más corto que mientras me deciais si podía hablar ó no.
Hablas de imposición, no sé donde la ves, pero... yo te podría decir que el otro día cuando preguntamos sobre este tema, Andoni dijo que habían participado, si mal no recuerdo, quince personas en el programa de Participación Ciudadana, sobre el tema de los residuos, si quince personas es democracia, imponer a nueve mil un sistema de recogida, entonces sí estamos hablando de imposición Joseba, y te doy toda la razón, totalmente una imposición

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA JNA. (TALDE MISTOA): Mientras no haya consulta, siempre es imposición.

ALKATE-LEHENDAKARIA.(EA).: Bueno, bozkatzera pasako gara, PNV?

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND.(EAJ-PNV): Kontra

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Kontra, PSOE,

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): En contra,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Kontra, ARALAR-ALTERNATIBA?

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. (ARALAR-ALTERNATIBA): Alde

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Alde, TALDE MISTOA?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Alde,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Alde, EA-k abstentzioa

ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 5 botu (2 ARALAR /ALTERNATIBA; 3 TALDE MISTOA)

Aurkako botuak: 5 botu (4 EAJ-PNV; 1 PSE-PSOE;)

Abstentzioak: botu 1 (EA)

PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 5 votos (2 ARALAR /ALTERNATIBA; 3 TALDE MIXTO).

Votos en contra: 5 votos (4 EAJ-PNV; 1 PSE-PSOE)

Abstenciones: 1 voto (EA)

Enpate, nola banekien, PNV-ek?

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND.(EAJ-PNV): Kontra

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Kontra, PSOE-k,

SR. EMILIANO CABAÑAS GONZALEZ (PSE-PSOE): En contra,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Kontra, ARALAR-ALTERNATIBA?

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. (ARALAR-ALTERNATIBA): Alde

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Alde, TALDE MISTOA?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Alde,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Alde Talde Mistoak,
Orain tokatzen da desenpatatzea?
Bueno, nola desenpatatzea tokatzen den bai aldekoa edo kontrakoa noski, baldintzatutako botoa da, zeren, nik abstentzioan mantentzen naiz, lehen esandako arrazoi berdinagatik.
Nahiz filosofiarekin ados gauden, nahiz eta lehen esan dudan bezala esaldi borobilegiak dauden, guk berez horrela dauden bezala konpartitzen ez ditugunak, nahiz eta esan dudan bezala esan nahi duenarekin ados gauden eta beste sistema eredu batzuk bilatu behar diren horrekin ere bai, batez ere PIGRUG-a egin zenean, ba... bueno sistema hauek sortzeko zeudelako, sortu direlako eta hortik dauden emaitzak ere ba... usten dut kontutan eduki beharrekoak hartu beharrekoak direla eta baita ere gaur egun daukan errauskailuaren dimentsioa ez dela egokia Gipuzkoak behar duen errauskailurako, beraz baldintza horrekin baietzko botoa

ERABAKI ZATIA

Aldeko botuak: 6 botu (2 ARALAR /ALTERNATIBA; 3 TALDE MISTOA; 1 EA)
Aurkako botuak: 5 botu (4 EAJ-PNV; 1 PSE-PSOE;)
Abstentzioak: 0

**LEHENENGOA:** USURBILGO ITUNAREN INGURUKOA, (Hondakinen kudeaketa) TALDE MISTOAK AURKEZTURIKO MOZIOA ONARTZEA,
.

PARTE RESOLUTIVA

Votos a favor: 6 votos (2 ARALAR /ALTERNATIBA; 3 TALDE MIXTO; 1 EA).
Votos en contra: 5 votos (4 EAJ-PNV; 1 PSE-PSOE)
Abstenciones: 0

**PRIMERO:** APROBAR LA MOCION PRESENTADA POR EL GRUPO MIXTO EN RELACION AL PACTO DE USURBIL (gestión de residuos)

Bukatzeko, **ESKARI – GALDERAK,**

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Bai,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: M. Eugenia,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Bai, galdera erraza,
Ze egun da gaur?

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Erantzuteko moduan zaude, iruditzen zait

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Hogeita hamaika, Martxoaren hogeita hamaika, eta orain dela ez dakit, egun batzuk, joan den astean pentsatzen dut, jaso nuen, nik behintzat, beste gainontzeko bozeraemaileak ere bai, seguruenik, jaso genuen mezu bat e-mail bitartez, esanaz, oraingo hontan ZumaiaZu Udal Aldizkaria lehenago aterako zela, aurreikusita zegoena baino ba... hauteskunde lege berrien aplikazioan epe mugak ezartzen zirelako eta bueno, nolabait, beste batzuetan baino denbora gutxiago geneukala adieraziz, denbora gutxiago

geneukala talde bakoitzak aldizkari hortan esan beharrekoak idatziz pasatzeko.
Hori horrela izan da eta oker ez baldin bagaude, lege horrek, bai, ezartzen ditu muga batzuk eta hogeita bederatzian hasten ziren aplikatzen, gaur hogeita hamaika da eta jakin dugunez, gaur hasi da banatzen ZumaiaZu Aldizkaria eta gainera bueno... nahiko edukiz betea, eta ez bakarrik eduki informatiboak baizik eta eduki baloratiboak, eta baloratiboak ezezik agintaldien zehar egindako edo zuen aburuz lortutako emaitza, gestio emaitza onak ere adierazten ditunak.
Beraz, denen, Herritar guztion diruarekin ordaindutako Udal Aldizkariaren erabilpenari buruz, zalantza galantak planteatzen diren gaia da eta akaso guri ezezik, ba... hauteskunde legearen betetzea kontrolatzen duen, ez dakit, nola izena duen –comité electoral- edo nola izena duen dena delako horrek ere planteatuko dizkigunak ez? edo zer daukazute horren inguruan esatekorik,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Bai, kontua da, hogeita zortzirako banatuta eduki nahi zela, baina dirudienez, eta hala transmititu digute komunikazioko arduradunek inprentarekin arazoren bat edo beste eduki dute eta inpresio arazo horiek atzeratu dute banaketa.
Kontua da, martxoaren hogeita zortzirako web orrian ia... PDF bertsioa zintzilikatuta zegoela eta beste banaketa fisikoa aldizkariarena ez baldin bada egin izan da, ba... inpresio lanekin ba... arazoak eduki dituztelako edo, eta ez dakit, gaur banatzen ari diren edo... nik behintzat momentuan ez dut jaso.

JOSEBA JOSU AZPIAZU AZKARRAGA JNA. (TALDE MISTOA): Nik jaso dut, gaur

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Ah... eta hemen zaude gainera, asi que...
Atzo hasi ziren, bai...

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Atzo, ere beranduegi zen, eta gaur atzo baino beranduago eta PDF bat web orrian zintzilikatzearekin ia... bete duzute legea?
Edo ze... planteamentu transparente eta behar bezalako egiten ari zarete, orain ere?
Batzorde informatiboak goizetan jartzearen argudio berdina da, erabiltzen duzutena?

Zuen Udal kudeaketa, baita hontan ere, defendatzeko?
Ez da berdina izango, ezta?
Baina, desde luego, oso oso adierazgarria izaten ari da, guzti hau eta buelta bat emango diogu eta aztertuko dugu, ez dut aukerik izan aldizkaria eskuartean edukitzeko, PDF-a bai oraintxen ikusi dut, web orrian zintzilikatuta, baina usten dugu oso hitz arina erabiltzeagatik, gutxienez oso zalantzazkoa dela.

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Bai, erantzunez, M. Eugeniak esan duenari, ez dakit, dakizun Junta Electoralak diona, zehazki, zer den, M. Eugenia?, edo legeak edo dekretuak diona,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Ez, ez dakit, zer den zer....

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Oker ez baldin banago, eta Junta Electoralari galdeketa bat baina.....

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Se prohiben balances de legislatura y otro tipo de cuestiones valorativas de la gestión realizada, ez dakit, ze hitz erabiltzen dituen, baina zuen prebentzioa zen hogeita zortzia baino lehenago kaleratzearena, zuena, hori horrela adierazi zitzaigun

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Junta Electorala egin zaizkio hainbat galdera aurtengoa delako aurrenengo aldiz, hori aplikatzen dena, dakizun bezala eta oker ez baldin banago 3/2011ko ebazpenean, oker ez baldin banago eta gutxienez, nik zalantza jarriko nuke, hogeita bederatziaren aurretik inprentan dauden, nahiz eta banatuta ez egon, inprentan dauden edozein eta kontratatuta dauden edozein publikazio gero banatzeko aukera dago.
Ziur ez dut esaten, baina gutxienez M. Eugenia zalantza jarriko nuke, beste gauza batzuren artean, badakidalako alderdi politiko guztiak ere interpretatzen gaudela, aurrenengo urtea delako, hori, beraz, hain ziur gauzak ez esan.
Beste bateren batek zerbait esateko?
M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Ez dut hain ziur esan, esan dut, gutxienez oso zalantzazkoa iruditzen zaigula, gutxienez

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Niri iruditu zait oso ziur esan duzula,

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Gero, batzordeak goizetan jartzen direla eta bueno... behin baino gehiagotan aipatu da pleno hontan ez gara gu izan aurrenak, batzordeak goizetan jartzen, egon dira lehen aurreko legealdietan ere batzorde batzuk goizetan, hori ere horrela da eta Udal Elkartean ere nik dakidala behintzat batzordeak goizetan legealdi hontan jarri ziren, aurreko legealdietan arratsaldez egiten zirelako eta gu behintzat, ez dugu horrelako kexa nabarmenik adierazi inon, guri ere zailtasunak sortzen dizkigu horrek, kontua da batzordeak goizetan egin edo arratsaldean egin, arratsaldetan jartzen ditugun batzordeetan ere ba... zailtasunak egon egoten dira eta goizetan ere berdin, asistentzia maila ez da jaitsi edo igo, nik usten dut parean dabilela, goizetan jartzen direnak edo arratsaldetan jartzen direnak ba... alderdi desberdinen aldetik, beraz, ba... bueno norbaitek goizetan jarri zenean ba... ikusi nahi baldin badu arazoren bat ba... bueno guk ere beste erakunde batzuetan ere goizetan joaten gara eta erabaki horiek ere ba... zuen aldeko... aldean dauden alderdikideek hartu dute eta ez dugu horrenbesteko ba... ez dakit, errepikapenik egin, ez dugu aipatu ere egin eta bueno... goizetan egiteko beharra ere pleno honek hartu dituen erabakien ondorioa ere bada eta logikan ere badago, esplikatu da eta bueno... ulertuko da edo ez da ulertuko, baina azken finean batzordeak arratsaldean jartzea eragin batzuk ditu eta eragin horiei aurre egiteko hona proposamen batzuk ekarri ditugu, ez dira proposamen horiek ontzat ematen, beraz, nola mantenduko ditugu batzordeak arratsaldean, gero ondoren batzordeak arratsaldean egiteagatik sortzen diren eraginei aurre egiteko borondate politikorik ez badaukagu,

M. EUGENIA ARRIZABALAGA OLAIZOLA AND.(EAJ-PNV): Andoni, zera maisua manipulatzen lanetan eta hitz leunak erabiltzen nahi duzuna egiteko, horixe da,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Bueno, beste bateren batek, zer edo zer esateko?
Inork ez, Lide gero Aitor

LIDE AMILIBIA BERGARETXE AND.(EAJ-PNV): Bai, gaurko prentsan azaldu zaigu ba... estudio bat egin behar dela... egin behar duzutela hondakinei buruz eta enpresa adjudikatzailea Garbitania enpresa dela, enpresa esanguratsua eta hitz egiten duzue bueno... –Zumaia desenvolsará más de 10 millones de euros por la incineradora, cuando ni se nos ha pedido opinión- horrelako... esaldi borobilak esaten oso onak zarete.
Enpresa honek, hau nola adjudikatu da?
Eta ze kostu edukiko du?
Eta enpresa hau, (baita ere) usten dut bere partaide bat edo bere jefeetako bat Imanol Azpiroz dela oso ezaguna eta oso... hori da, Zubietako Ezker Abertzaleko kidea eta... edo Usurbilen eta bueno... ba... San Marcoseko Lehendakari ordea eta oso tipo ezaguna gai hauetan, orduan, pixka bat informazio gehiago eskertuko nizuke

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Nola ez, baina informazio hori aurreko hirigintza batzordean eman genuen eta... ba... ez, ez, ez, berriro ere ematera noa, baina nik ere adierazi nahi dut informazioa ez baldin badaukazu, ez dela eman ez delako, ez duzulako besterik gabe, eman da hirigintza batzordean,
Kontua da, Gipuzkoan zero zabor irizpidekin lan egiten duten udaletxeak, egon badaudela eta udaletxe horiek ba... lanketa hori aurrera eramateko orduan, teknikoki aholkatzeko eta irizpide horien baitan lan egiteko, enpresa publiko bat sortu dela, enpresa publiko hori Garbitania da, eta Gipuzkoa mailan gai honen inguruan eskarmentu gehien dutenak, noski, beroiek dira, aurrera eramaten ari baidira eta egitearen poderioz adituak ere badira, orduan dakienari galdetzea iruditzen zaigu ba... emaitza onak eman ditzakeela, 10 miloi euro, ez, 10 mila euro kostatuko da azterketa hau eta hamar mila euro horiek ba... jakin dakizuten bezala, kontratazio ba... menor bat da miloi eta bostehun mila pezetako kontratazio menor bat da eta hori ba... prozedura izan da behar zuena, ba... Garbitania kontratatu dugu, herri alde mailan gai honen inguruan esperientzia gehien duen enpresa delako eta gai honen inguruan ezagutza gehien duen enpresa delako.
Enpresa honek aholkatzen baidio bai Usurbil, Oiartzun, eta Hernaniri atez-ateko bilketak garatzeko orduan, beraz, dakienari galdetzea ona izaten da, bai.

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aitor,

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. (ARALAR-ALTERNATIBA): Aralar eta Alternatibak, 2007tik hona hainbat eskaera burutu izan ditugu batzorde ezberdinetara, hainbat detaile jorratzeko eskaera luzatu izan dugu, gai legalak, ingurumen gaiak, kultur eta hirigintza arloan ikusten dituztenak, besteak beste.
Mahai gainean jarri ditugun gai guztiak ez ditugu aipatuko, zerrenda luzegia izango baizen, baina bai gure ustetan garrantzi berezia dutenak, ondorengoak dira:
Batzordetan harturiko erabakiak errespetatu beharra azpimarratu nahi dugu alde batetik, esate baterako bariantea egin aurreko batzorde batean, bariantearen soinuen aurkako pantaila bertako landarekin osatuko zela erabaki zen eta hau ez da horrela izan. Honi buruz galdetzean kanpoko zuhaitzak sartzea Foru Aldundiaren ekimena izan zela erantzun ziguten, baina gure ustetan udalak, bertan, harturiko erabakia betearazteko nahiko indar ez zuen egin, are gehiago, zati luze batean pantaila transparentea ezarri da eta ondorioz hegazti ugari istripuak izaten dituzte bertan, hauetariko asko bertan hiltzen direlarik.
2008tik batzordeetan arazo honi buruz hitz egin izan da.
Beste gai bat,
Bedua eta Santio egoerari buruzko informazioa jasotzeko jarraipena egin ahal izateko eta horrela egokiena deritzogun erantzuna eman ahal izateko erabakietan laguntzeko 2009an batzorde bat burutu zedila eskatu genuen, oraindik deialdiaren zain gaude.
Beduako eremuak ezinbestean behar du bertako egitaraketa garatzeko Plan Berezia,
2010ean Alkate Dekretu bidez, Urola itsasadarraren Plan Berezia partida bat sortu zen, baina egia esan ez zen ezer egin.
Aurten ere egoera berdinean gaude, are gehiago, esan daiteke dagoeneko 40 urtez luzatu den arazoa dela bertan hasi baiziren lurjabe eta udalen arteko tira-birak, bada ordua hau konpontzeko eta egoera normalizatzeko, nahiz eta aurten aurrekonturik ez onartu iazko aurrekontuak balia daitezke hortarako eta hori izan da behin eta berriz gure aldetik Udal Gobernuari helarazi diogun eskaria.
Santixoko padura, babez bereziko gunea da, horrela dago izendatuta eta horrela mantendu nahi dugu gure oinordekoentzat. Hori dela eta oso nekeza egiten zaigu oraindik padura igarotzen duen errepidea trafikoarentzat irekia egotea. Errepide hau, soilik egoera berezietan eta bertan behar bereziak garatzeko soilik erabili beharko litzateke. Natur taldeak urteetan egin duen eskaria da hau eta 2010ko ekainean batzordean ere horrela eskatu genuen.
Bueno... dena irakurriko dut eta, legeak idazterakoan ezinbestekoa da herritar guztien maila berean aplikatzea. Gaur egun beste adjetiborik erabili gabe, gutxienez, kuriosoa egiten zaigu Narciso Kortaren balkoiaren afera. 2009an Diario Vascoren bitartez Narciso Korta balkoia berri bat

egiten ari zela jakin genuen, gure harridurarako obra horrek ez zuen inolako baimenik eta behin baino gehiagotan egoera honen berri galdetu izan dugu. Badirudi eta ditugun azken berrien arabera, udalean legeztatu ala ez erabaki nahian dabiltza, pelota beste erakundeetara pasatuaz e.a. horrelako gaiekin zuzen jokatzea ezin bestekoa da eta legeak egiten direnean guztioi maila berean aplikatu. Obra baimenik gabe besteren batek zerbait egingo balu, berehala egongo zen udala begiarazten eta beharrezko tramiteak betearazten. Nahikoa da balkoi hori legez kanpokoa denez botatzea eskatzen dugu. Gainera inguruko informazio gehiago eskatu genuen eta abenduko 2010eko abenduko batean, idatziz eta oraindik erantzunik gabe.
Badakigu ekitaldi bereziak antolatzeak bere zailtasunak izan ohi dituela eta ez dela erraza izaten, baina ekitaldiak ekitaldi denok errespetatu behar ditugu hainbat baldintza, lehen esan bezala legeak guztiontzat berdin aplikatu behar dira eta ekintza gustokoa edo ez, ezin daiteke hauei musin egin, are gutxiago, udaleko teknikarien eta udaltzainen laguntzaz.
Udaleko batzorde ezberdinetan 2010eko urrian burutu behar zen zaldi topaketari buruzko informazioa berri eskatu genuen hainbat batzordetan, inork ez zuela horren berri erantzun zitzaigun. Beharrezko baimenak udaltzainek luzatu zizkieten baina hauek ez zuten ezarritako ibilbidea errespetatu, are gehiago, Zumaia osoa hartu zuten beraientzat. Ez dugu ulertzen inolako batzordetik pasa ez izana, eta Itzurungo hondartzara ere jaitsi ziren, hau espreski debekatua dagoenean eta hortarako baimen bereziak behar direnean. Udal Gobernuari horrelako kasuetarako beharrezko protokoloak ezartzea eta hauek errespetatzea eskatzen diogu eta bide batez teknikoei eta udaltzainei horrela ezin dutela jokatu adieraztea.
2010ean Torreberri egoera normalizatzeko, bueno... batzorde batean galdetu nuen egoera normalizatzeko eskatzea. Erantzun zidaten lehendabizi bertan egiten diren ihardueraк legalizatu egin behar direlako eta ez dago prestaturik gaztetxeentzat eta dantzarentzat. Hori da jaso nuen erantzuna.
Hau dena ikusia eta oker gerta aurretik, behar diren urratsak eman behar dira egoera legeztatzeko, erabaki hauek ez dira batzordetik pasa eta irregulartasun hau konpontzeko ez da ezer egin.
Portuko langileek, lexiaren...

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aitor, barkatu, luzerako da?

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. (ARALAR-ALTERNATIBA): Nola ke.... luzerako da?

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Es ke... gai desberdin asko ari zara ikutzen, eta galdetu egiten dut,

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. (ARALAR-ALTERNATIBA): Bai... nahi baduzu gelditukо naiz, eta erantzungo die eta gero jarraituko dut,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Nola?

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. (ARALAR-ALTERNATIBA): Idatzi hau pasa nizuen, badakit....

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Bai, bai... baina ez dakit asko falta zaizun edo ez,

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. (ARALAR-ALTERNATIBA): Bederatzigarren puntutik noa, orain....

ANDONI ETXANIZ OSA JNA. (TALDE MISTOA): Eta dira hamalau, ez?

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. (ARALAR-ALTERNATIBA): Bai,

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Ba... laburtzerik al baldin baduzu, faborez,

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. (ARALAR-ALTERNATIBA): Bueno... bale, laburtuko dut, lasai,
Azken finean, beste komisio batzuetan eskatu izan da, galdetzea Puertosi lexiarekin garbitzen dituztela eskailerak eta ez zait iruditzen egokia denik, kontuan edukita gainera, hainbeste diru gastatu dugula araztegian, orduan, galdera horri oraindik erantzun gabe dago,
Draga asuntoarekin ba... idatziz eskatu nuelako orduantxe egin zenuten zerbait, baina kuriosoa izan da nola lortu ditudan papelak eta izan da ia... draga lana bukatu ondoren, eta bueno... hori gertatu ez dadin ba... nik usten dut hor zer edo zer egin beharko dela.

Bidabeazpiko lokala ere behin eta berriz galdetu dut, bere egoera nola dagoen, hau da... udalak berak nola eskuratu zituen, nola eskuratu zuen lokal hori, zeren, benetan oso baldintza kaxkarrean dago, eta hori oraindik ere erantzunik gabe daukat.
Egurko aldean dauden baratzetan ere, baserritar batek bere txabolara iristeko horrelako altxirria bota zuen, hori bere garaian ere informazioa udaletxean eskatu nuen ea zer gertatzen den horrekin, ea baimenduta dagoen eta oraindik ez dut erantzunik jaso.
Xoxokua baserrikoei ere eman zitzaien baimen bat, okoilu bat egiteko eta okoilu horrek ez ditu baldintzak betetzen eta baimenduta zegoen erabilpen bat egiteko eta hori ere ez du betetzen.
Eta bestea ba... bueno Udal inbentarioa behin eta berriz eskatzen dugu, egin, egin behar dela eta derrigorrezkoa dela gainera Udalak edukitzea eta horren zain gaude, erantzun guztioien zain.

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Bai, Aitor, erantzuteko, hau.... lehendabiziko gauza,
Bat, eskari-galderetan gaudela eh? eta eskari-galderetan normalena izaten da, eskari bat egitea edo galdera bat egitea eta ahal den neurrian erantzutea hemen gaudenon aldetik, eta ezin baldin badugu ba... askotan esaten dugun bezala gaia zehatzago tratatu nahi baldin bada ba... batzordetan joaten da eh?
Zuk egin duzun zera guztia, ematen du gainera gauden épocan egon da, ba... legislaturan edo legealdian balorazio bat dela, ez? Gai oso ezberdinak ikutu dituzu eta gauza bat eta beste bat e.a., eta denei ezin erantzun, orain ez?
Orain, behin hori egiten jarrita eskertuko nuke baita ere kontabilitatean egoten den bezala, -activos y pasivos- egotea, eskatu diren gauzak eta egin ez direnak, baina eskatu direnak eta egin direnak ere bai, eh? horrek ematen duelako ikuspegi orokor bat legealdia ze izan den.
Badakit ia... hauteskundeetara iristen ari garela eta denak hauteskundeari begira ari garela eta sinistu nahi dut retaila, ez retaila, baizik eta horko puntu guztiak funtsa hortan daukatela, zeren, beste ez dut ulertzen zergatik bat bestearen errenkan jartzen diren.
Orduan, bueno, ba... adierazi ahal den neurrian saiatuko garela erantzuten eta adierazi baita ere ia ke legealdian zera eman dudan, ba... guri ere bere garaian gustatuko litzaigukeela Aralar ere, batez ere legealdiaren hasieran Gobernu barruan egon balitz, eh?
Gobernu barruan egon da, ikusten direlako bai... oposizioan dauden gauzak eta baita Gobernu barruan daudenak ere, eh?
Eta... errazena askotan izaten da oposizioan jarri eta aukera ematen dizulako denei zerak egiten, eh? denei... aukera ematen duelako

kritikatzeko e.a. baina gustatuko litzaiguke, guri ere, gure lanketa hortan eh? lan bat delako ba... laguntza gehiago izan baldin bagenuen.
Erantzun nahi baldin baduzu,

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. (ARALAR-ALTERNATIBA): Ni, zinegotzi bezala nago, uztailetik, uztailetik hona guk eskatutako gauza, ale bat ere ez duzue egin, orduan nik usten dut salagarria dela hor. Salagarria zentzu hortatik, zeren, gauza batzuk bai komisiotik erabaki direla eta ez direla gauzatzen, orduan komisioetan erabakitzen diren gauza hauek ere ez badituzue bete behar, ez dakit, zertarako gauden hemen.

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Aitor, esan dizut, nik Aralarri bezala erantzuten ari naiz eta legealdiko ikuspegi bat egiten ari naiz, eta zu zaudetenik horixe egin direla gauzak, eh?
Gertatzen dena ahaztu egiten direla, hor dago zubia, hor dago parkeak, hor daude aurrekontuetan sartutako hainbat gauza, onartu ez zirenak e.a.; e.a.; aktiboak eta pasiboak daude, bai Aralar dagoenetik legealdi hontan, eta bai zu zaudenetik ere,

AITOR LEIZA ALBERDI JNA. (ARALAR-ALTERNATIBA): Nik nagonetik, ez dut gogoratzen alerik

ALKATE-LEHENDAKARIA. (EA).: Bueno... ba... oso ondo, hori baldin bada balorazioa, pozten naiz
Bateren batek zer edo zer gehiago? Ezerrez
Oso ondo.

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat ematen du, gaueko bederatziak hamar gutxi direnean eta nik Idazkariak fede ematen dut,

No habiendo más temas que tratar, el Alcalde-Presidente dá por finalizada la sesión cuando son las veinte horas cincuenta minutos y yo el Secretario doy fé,

Alkateak,

Idazkariak,